



berpiztu

EUSKADIKO EKONOMIA ETA ENPLEGUA
SUSPERTZEKO PROGRAMA (2020-2024)

*Berpiztu 2022 programaren emaitzen eta Berpiztu
2023 programaren aurreikuspenaren txostena*

KONTSEILU ERREKTOREA
2023ko martxoak 28



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

*BEHAR DENA EGINGO DUGU AHALIK
ETA ENPLEGU GEHIEN
MANTENTZEKO ETA GALDUTAKO
ENPLEGU GUZTIA BERRESKURATZEKO*

(Lehendakaria. Mahai Sozioekonomikoa, 2020/05/27)



Aurkibidea

1. Berpiztu Programa (2020-2024)	4
2. 2022an exekutatuakoaren balantze orokorra	13
3. 2023ko aurrekontuaren eta emaitzen aurreikuspena	21
4. 2020-2023 aldiaren aurrerapen orokorra	26

ERANSKINAK

1. eranskina. Berpiztu 2022: aurrekontuaren exekuzioa eta emaitzak	30
2. eranskina. Berpiztu 2023: aurrekontuaren eta emaitzen aurreikuspena	62

ONDORIOAK



BERPIZTUrekin lotutako programei
buruzko informazio guztia
irekia.euskadi.eus/berpiztu

84





1.

Berpiztu Programa (2020-2024)




EAEko erakundeen artean partekatutako erantzun globala

Erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa inoiz baino garrantzitsuagoak dira une honetan, Covid-19aren pandemiaren ondorioek eragindako egoera konplexu eta zailari aurre egiteko, eta, are gehiago, Ukrainako gerraren ondorioei aurre egiteko; izan ere, horrek arazoak ekarri dizkie enpresei eta pertsoneri, eta euskal gizartearen ongizatea eta bizi-kalitatea zalantzan jarri dituzte.

Testuinguru aldakor horretan, 2020tik dago martxan plan hau, eta Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiak bat egin zuten haren oinarriekin, ekonomia eta enplegua batera suspertzeko.

Partekatutako oinarri horien gainean, **Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programa onartu zuen Eusko Jaurlaritzak**, 2020ko azaroaren 3ko gobernu-kontseiluan, foru-aldundien eta eragile ekonomiko eta sozialen kontraste- eta ekarpen-prozesu baten ondoren.



[Iturria: Bepiztu, Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa \(2020-2024\)](#)



Aurre egin beharreko 3 trantsizio global handi

Euskadik megajoera horiek trantsizio teknologiko-digital, energetiko-ingurumeneko eta sanitario-sozialaren hirukotean laburbiltzen ditu, herrien, negozioen, industrien, gizarteen eta pertsonen etorkizuna eraldatzeko gaitasuna dutela kontuan hartuta. Megajoera horiek, era berean, aukera ona izan daitezke enplegua sortzeko, eta, horretarako, prestakuntza egokia duten pertsonak eduki behar ditugu.



TRANSIZIO TEKNOLOGIKO-DIGITALA

Digitalizazioa.

Adimen artifiziala eta Big Data.

Teknologia, herritarren
zerbitzura.

Automatizazioa.

Zibersegurtasuna.

Bidezko ekonomia digital
eta lehiakorren sustapena.



TRANSIZIO ENERGETIKO-KLIMATIKOA

Neutraltasun klimatikoa.

Energia-sistemaren
deskarbonizazioa.

Baliabideen eta energiaren
erabilera efizientea –ekonomia
zirkularra–

Mugikortasun jasangarria eta
adimenduna.

Bidezko trantsizio energetikoa.

From farm to fork.



TRANSICIÓN SOCIAL Y SANITARIA

Osasun-sistema eta arrisku
pandemikoak.

Demografia eta zahartze
osasuntsua.

Migrazioa.

Genero-berdintasuna.

Zainketa-eredu berriak.


Gizarte- eta lurralde-kohesioa.

[Iturria: Berpiztu. Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa \(2020-2024\)](#)

Next Generation EU tresna europarrarekin bat datorren programa

Next Generation EU funts europarrak erreferentzia-esparru globala ezartzen du baliabide eta ahalegin publiko eta pribatuak Europa ekologiko, digital eta erresilientea eraikitzea bideratzeko, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartuko dituen hazkunde jasangarri eta integratzailearen bidez.

Euskadik ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren definiziorako oinarri gisa partekatzen eta bereganatzen ditu orientazio hauek, eta bere estrategiako ardatzen eta suspertze-tresna europarraren arteko bateratzea ezartzen du. Horrenbestez, ekonomia indarberritzeko ardatzak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren filosofia eta funtsa txertatzen ditu, eta, bestalde, Enplegua Sortzeko Ardatzak gizarte- eta lurralde-kohesiorako REACT-EU Programaren dimentsio handiak jorratzen ditu.



[Iturria: Berpiztu, Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa \(2020-2024\)](#)



2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorren programa bat

Euskadik bere gain hartu du garapen jasangarrirako helburuekin (GJH) bat egiteko konpromisoa, eta Euskadi Basque Country 2030 Agendan xertatu du. Hauek dira estrategia honekin zerikusi handiena duten garapen jasangarrirako helburuak:

5. Genero-berdintasuna
6. Ur garbia eta saneamendua
7. Energia irisgarria eta ez-kutsagarria
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura
10. Desberdineriak murriztea
11. Hiri eta komunitate jasangarriak
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
13. Klimaren aldeko ekintza

Garapen jasangarrirako helburuetan, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren esparruan, 41 xede, 25 planifikazio-tresna, 10 ekimen legegile, 39 konpromiso ez ezik, 21 adierazlez osatutako aginte-taula bat ere sartzen da.

Gainera, 3 trantsizioekin oso lotuta dauden GJHak dira:

- Trantsizio teknologiko-digitala: GJH8 eta GJH9
- Trantsizio energetiko-ingurumenekoa: GJH7, GJH8, GJH11, GJH12 eta GJH13
- Trantsizio sozial eta sanitarioa: GJH8 eta GJH10



Enplegua eta ekonomia suspertzeko Programa, 10 konpromisorekin

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak helburu zehatzak planteatzen ditu, **Euskadiko enpleguarekin, susperraldi ekonomikoarekin eta erresilientziarekin lotuta, eta** Next Generation EU Funtzaren esparruan egindako **gomendio europarrekin bat**. Hauek dira, zehatz-mehatz, helburuak:

1 Inbertsio publikoarekiko konpromisoa: 13.250 milioi euroko ahalegin publikoa egitea, ekonomia suspertzeko eta enplegua dinamizatzeko.

2 Enpleguarekiko konpromisoa: langabezia-tasa % 10etik behera kokatzea eta 130.000 enplegu dinamizatzea.

3 Gazteriarekiko konpromisoa: lehen lan-esperientzia eskaintzea 25.000 gazte baino gehiagori, hezkuntza-mundutik lan-mundura igartzeko programetan, kontratazio-konpromisoa duen prestakuntzan, enplegurako prestakuntza dualean, gazte-ekintzailertzan eta nazioarteko espezializazioan.

4 Enpleguaren kalitatea hobetzeko konpromisoa: gizonen eta emakumeen artean soldata-arrakala murrizteko, zaintza-eredu arduratsu berriak garatzeko, lana eta familia uztartzeko eta kontratazioan iruzurra jazartzeko programak garatzea.

5 I+G+Barekiko konpromisoa: inbertsio publikoa urteko batezbestekoan % 6 handitzeko lan egitea, Euskadi berrikuntza gune izan dadin Europan eta trantsizio globalei aukera moduan egin dakien aurre.

6 Europako estrategiarekiko konpromisoa: Europar Batasunak ezarritako eraldaketa-ardatz nagusiekin bat, Euskadi digitalagoa, Euskadi berdeagoa eta Euskadi inklusiboagoa eraikitzea.

7 Garapen jasangarrirako helburuekiko konpromisoa: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, erronka teknologikoekin eta erronka sozialekin zuzenean lotutako garapen jasangarrirako helburuei erantzuna ematea. Ingurumen-erronkek ere funtsezko zeregina dute energia berriztagarrietarako trantsizioa bizkortzeko, hiri-birgaitze energetikoa lortzeko energia-efizientziako irizpideekin eta mugikortasun jasangarria eskuratzeko, tren lehentasunezko ardatz hartuta.

8 Industriarekiko konpromisoa: industria jotzen da Euskadiko ekonomia eraldatu eta berpizteko motortzat. Industria aurreratua, digitalizatua eta nazioartekotua. Industria berria, inklusiboagoa eta parte-hartzaileagoa.

9 Enplegu publikoarekiko konpromisoa: enplegatu publikoen finkotasuna eta administrazioaren berrikuntza sustatzea, informazioaren teknologia berriak eta digitalizazioa sartuta, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea hobetzeko.


10 Zerbitzu publikoak hobetzeko konpromisoa: osasun- eta hezkuntza-sistemen eraldaketa fisiko eta digitala. Osasuna, zahartzarora eta zainketak izango dira ekonomian eta enpleguan aukerak eskaintzen dituzten nitxo berriak.



Bi ardatz egituratzaile, eta zeharkako eremu bat

Ekonomia eta enplegua suspertzeko BERPIZTU Programa 2020-2024 ekonomia eta enplegua suspertzeko funtsezko erronken gaineko erantzun integrala da, eta **bi ardatz bertikal nagusitan egituratzen da: «Ekonomia suspertzea» eta «Enplegua sortzea»**. Ardatz horiek **12 jardunbidetan hedatzen dira**, eta horiek, era berean, ekonomia eta enplegua suspertzeko eta sustatzeko hainbat tresna eta neurriren erreferentzia-esparrua dira (estrategiaren aldiari zehar garatu beharrekoak). Halaber, hirugarren ardatz edo **zeharkako eremu bat ere zehazten da, «Enpleguaren kalitatea hobetzea» (Programaren hamahirugarren politika)**.

Arestian aipatutako 12 politika eta 60 jarduketa-ildoetan, baita programa eta neurri guztietan ere, genero-ikuspegia txertatuko da; horrela, emakumeen eta gizonen abiapuntu eta beharrian desberdinak hartuko dira kontuan.



I. ardatza: Ekonomia suspertzea

1. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea
2. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala
3. Energia- eta ingurumen-trantsizioa
4. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea
5. Elikagaigintza
6. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria

II. ardatza - Enplegua sortzea

7. Ekintzailtza. Enpresa berriak
8. Enplegurako prestakuntza
9. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak
10. Renove programak. Eraikinen birgaikuntza
11. Enplegu Publikoaren Eskaintza
12. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana

Zeharkako eremua: enpleguaren kalitatea hobetzea

- Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala murriztea
- Prekaritatea murriztea (aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialekoak)
- Prebenzioa eta lan-segurtasuna areagotzea
- Lan-ikuskaritza indartzea
- Erantzunkidetasuna eta lanaren eta familiaren kontziliazioa sustatzea
- Enpresa-eredu inklusiboago eta parte-hartzaileagoetarantz eboluzionatzea
- Elkarrizketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomoa bultzatzea


[Iturria: Berpiztu, Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa \(2020-2024\)](#)



13.250 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa


Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak **13.250 milioi euroko (*) aurrekontu-inbertsio zenbatetsia dauka 2020-2024 aldirako**. Zenbateko horretatik 9.550 milioi euroko aurrekontua bideratuko da ekonomia suspertu eta enplegua sortzeko bi ardatz nagusietara, eta 3.700 milioi euro gehitu dira enpresentzako eta pertsona autonomoentzako abal gisa.

Aurrekontuan, 7.935 milioi horiek dira ekonomia suspertzeko ardatzerako eta 1.615 milioi euro enplegua sortzeko ardatzerako.



(*) Oharra: 2020-2024 aldirako XII. legegaldirako inbertsio-datuak dira, legegaldia hasi zenetik aintzat hartuta. Aurrekontuetan 2020ko guttizkoaren % 50 kalkulatu da.


Berpiztu Programa 2020-2024 (2020-11-03ko gobernu-kontseilua)






2.


BERPIZTU 2022 Programaren exekuzioaren balantze orokorra



2022an AURREIKUSITAKO inbertsioen eta emaitzen laburpena



2022an EXEKUTATUTAKO inbertsioen eta emaitzen laburpena



2022ko aurrekontuaren exekuzioa

I. ARDATZA – EKONOMIA SUSPERTZEA

I. ardatzak – Ekonomia suspertzea – 2.183 M €-ko (emaitzen aurrerapena) aurrekontu-exekuzioa lortu du 2022an. I. ardatzean definitutako politiketarako hasieran egindako aurrekontu-aurreikuspena apur bat gaindituz, oro har.

I. ARDATZEKO POLITIKAK - EKONOMIA SUSPERTZEA	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2022 (2)	2022ko betearazpena (3)
1. INBERTSIOA AZPIEGITURA PUBLIKO EKONOMIKO ETA SOZIALETAN	2.976 M€	807 M€	794 M€
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M€	588 M€	595 M€
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA	357 M€	206 M€	133 M€
4.- INDUSTRIA ETA ETEAK, ZERBITZU AURRERATUAK ETA NAZIOARTEKOTZEA (*)	1.164 M€	325 M€	316 M€
5.- ELIKAGAIEN INDUSTRIA	613 M€	159 M€	226 M€
6. MERKATARITZA ETA TURISMOAREN ETA KULTURAREN INDUSTRIA	313 M€	79 M€	120 M€
I. ARDATZA (guztizko partziala) - EKONOMIA SUSPERTZEA	7.935 M€	2.163 M€	2.183 M€
(*) ABALAK	3.700 M€	650 M€	650 M€
I. ARDATZA, EKONOMIAREN SUSPERTZEA, GUZTIRA	11.635 M€	2.813 M€	2.833 M€

1. oharra: 2020-2024 XII. Legegintzaldirako kalkulaturako aurreikusitako aurrekontuen datuak (2020ko irailetik abendura bitarteko aldiari dagokion zatia barne).

2. oharra: 2022ko aurrekontuen datuak Eusko Legebiltzarrean onartutako aurrekontuetatik datoz.

3. oharra: 2022ko gauzatze-zifrak bat datoz Ogasun Sailaren Gardena webean argitaratutako azken datuekin (D fasean esleitutako aurrekontuak), Sailaren kontraste batekin batera. Datu horiek aurrerapausoak dira, eta behin betiko betearazpenari buruzko datuak eskuratu ondoren berrikusi ahal izango dira.



II. ardatzak – Enplegua sortzea – 368 milioi euroko aurrekontua gauzatu du (emaitzen aurrerapena) eta aurreikusitako aurrekontuaren % 90,8; kalkuluen arabera, 2022an 43.859 enplegu sustatu dira (emaitzen aurrerapena).

II. ARDATZEKO POLITIKAK - ENPLEGUA	2020-2024 aurreikuspena		2022ko aurreikuspena (2)		2022ko betearazpena (3)	
	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
7. EKINTZAILITZA. ENPRESA BERRIAK	128 M€	10.790	38,3 M€	2.560	34,5 M€	2.657
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA (4)	342 M€	42.100	82,1 M€	13.793	71,3 M€	17.982
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK (4)	577M€	26.110	125,3 M€	5.238	118 M€	4.689
10.- RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZA BIRGAITZEA	406 M€	15.000	116,4 M€	4.261	93 M€	3.475
11.- ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK (1)		10.720		4.065		8.764
12.- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA	162 M€	25.800	35,3 M€	6.963	51,2 M€	6.291
II. ARDATZA - ENPLEGUA, GUZTIRA	1.615 M€	130.520	397,3 M€	36.880	368 M€	43.859

1. oharra: Enplegu Publikoaren eskaintzei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapituluko Orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

2. oharra: II. ardatzeko – Enplegua sortzea – 2022ko datuen jatorria Superegiturak 210 – Enplegu Plana izeneko txostenean dago. 2022an sustaturiko enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da. Programa hori Sailek berrikusi eta eguneratu dute ondoren.

3. oharra: 2022ko exekuzio-zifrak Ekonomia eta Ogasun Sailaren Gardena (D fasean esleitutako aurrekontuak) web-orrian argitaratutako azken datuei dagozkie, Sailaren kontraste batekin batera. Datu horiek aurrerapen-izaera dute, eta behin betiko betearazpenari buruzko datuak eskuratu ondoren berrikusi ahal izango dira.

4. oharra: 2020-2024 hasierako aurreikuspenari aplikatutako Enplegurako Prestakuntzako jardueretan erabilitako laneratze-tasa, zuhurtasun-irizpidearen arabera, murriztaileagoak izan ziren (% 25) kudeaketa-gomendioetatik eratorritakoak baino (% 45). % 45eko laneratze-tasa hori erabili da 2021etik aurrera (eta 2022an) enpleguan izango duen eragina kalkulatzeko, Hezkuntza Sailaren eta Lan eta Enplegu Sailaren (Lanbide) jarraibideen arabera, emaitzen benetako esperientzian oinarrituta..

2022ko beste emaitza batzuk

Enpleguak sustatzeaz gain, kalkulatu da Berpiztu Programak **beste eragin eta emaitza batzuk** izan dituela 2022an jardura ekonomikoan: **1.622 enpresa berri sortu** dira (mikroETEak eta autonomo berriak barne); **I+G+b arloko 333 proiektu** sustatu eta finantzatu dira; eta **2.782 industria-enpresari** lagundu zaie modernizatzen eta hedatzen.

ADIERAZLEAK	Aurreikusitako emaitzak 2020-2024	2022rako aurreikusitako BERPIZTU emaitzak	2022ko emaitzak (*)
SORTUTAKO ENPRESA BERRIAK	6.000	1.550	1.622
Mikroekintzailletza berriak eta pertsona autonomoak	5.000	1.300	1.492
Enpresa berritzaile berriak	1.000	250	130
EUROPAKO I+G+b PROIEKTUAK	600	175	333
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen Europako I+G+b proiektuak (**)	600	175	333
LAGUNDUTAKO ETE INDUSTRIALAK	10.000	2.200	2.782
Nazioartekotzeko	1.500	350	272
Modernizatzeke eta hedatzeke	1.500	350	625
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	250	790
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	450	211
Produktu berriak garatzeko	4.000	800	884

(*) Datuak 2022ko ETEen Planaren emaitzen bidez bildutako informazioan oinarrituta kalkulatu dira, sail arduradunek bidalita. Mikroekintzailletza berrien kasuan, aurreikusitako aurrekontuaren gaineko aurrekontu-gauzatzearen arabera kalkulatu dira emaitzak (% 97).

(**) 2020-2024 hasierako aurreikuspenak Europako I+G+Bko 600 proiektura eguneratu dira, Horizonte Europa Europako ikerketa-programa berria abiarazteko atzerapena eta programa horretan ezarritako baldintza berriak kontuan hartuta.



Enpleguaren kalitatea hobetzea eta genero-berdintasuna

Ekonomia suspertzeari eta enplegua sortzeari buruzko ardatzek berekin dakarte inplizituki galdutako enplegua berreskuratzeko, dagoen enplegua indartzeko eta enpleguaren kalitatea hobetzeko konpromisoa; hori Berpiztu Programa osoaren zeharkako eremuan dago islatuta: 3. ardatza. Enpleguaren kalitatea eta genero-berdintasuna izenekoan. Konpromiso horretatik abiatuta, 2021ean, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia onartu da, gizarte-eragileekin eta legebiltzar-taldeekin batera egindako lan-prozesu batean. Prozesu horrek kalitatezko enpleguaren aldeko itun inklusiboa proposatu du, Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialari laguntzeko. 2022an 2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoa onartu da. Ildo hauetan islatu dira gauzatutako ekintza nagusiak:

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

2022ko martxoaren 8an, 901/2020 Errege Dekretuan aurreikusitako hirugarren fasea osatu zen. Dekretu horren bidez, 50 langiletik gorako enpresetan berdintasun-planak inplementatzera behar izan da. Halaber, nabarmentzekoa da Emakunderen eta Euskaliten arteko lankidetzaren hitzarmena berritu dela, kudeaketa aurreratuan berdintasuna txertatuko duten ekintzak garatzeko. Lankidetzaren horren esparruan, honako hauek dira nabarmenak: kudeaketari genero-ikuspegitik balioa emateko gida egitea; kudeaketan berdintasun-jardunbide egokiak jasotzea eta identifikatzea; edo enpresetan berdintasuna kudeatzeari buruzko KnowlInn urteko ikastaroa abian jartzea. Halaber, zabalkunde- eta ikusgarritasun-lana egin da jardunaldi eta ekintza espezifikoen bidez, hala nola martxoaren 8ko kanpaina, Emakumeen Nazioarteko Egunkoia; Emakunde egin zuen 2022ko kanpaina "Benetan? Hori nahi al duzue guretzat?" goiburuean. Eta goiburua honako mezua honekin itxi da: "Garaiz gaude neskei beste etorkizun bat eskaintzeko, haien gorputzen eta itxuraren gaineko presiorik gabe". Aurten Soldata Arrakalari buruzko lehen kongresua egin da. otsailaren 22an Soldata Berdintasunaren eguna ospatu zen eta sektore maskulinizatueta emakumeen programa jarri da abian.

Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murriztea

Euskadik aurrera egiten jarraitzen du soldata-arrakala murrizten. INEren azken txostenaren arabera, eta orduko irabazia aztertuta, Europar Batasunak egiten duen bezala, soldata-arrakala ia 6 puntu jaitsi da Euskadin 2016arekin alderatuta, eta % 14,3tik % 8,3ra igaro da 2020an, Europarekin alderatzeko eskuragarri dagoen azken datuaren arabera. Ildo horretan, Emakunde 2025era arteko ekintza-plana aurkeztu du Elkarrizketa Sozialerako Mahaiko genero-berdintasunerako taldean, Eusko Jaurlaritzaren Estrategiaren barruan. Plan horren helburua da Euskadi soldata-arrakala txikiena duten Europako herrialdeen artean kokatzea 2030erako. 2022ko Lan Ikuskaritzaren azken balantzearen arabera, 2022an 8.760 kontratu baino gehiago mugagabe bihurtu ziren. Balantze osoak erakusten du kontratua aldatu zaien pertsona gehienak emakumeak direla.

Prekaritatea murriztea (aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialekoak)

Lan Ikuskaritzak kontrol-neurriak hartzen eta kanpainak egiten jarraitu du, lan-prekarietateari eta sexuagatiko edo desgaitasunagatiko diskriminazioari aurre egiteko. Neurri horiek Lan Ikuskaritzaren 2022-2024 Kudeaketa Planean islatu dira. Izan ere, planaren lehen erronka nagusia euskal enpresei eta langileei lan-merkatuaren eraldaketaren testuinguruan laguntzea da. Laguntza horren ondorioz, lan-prekarietatearen, enpleguaren kalitatearen eta behin-behinekotasunaren aurkako borroka egiten da, baita EAEn zerbitzuak ematen dituzten langile atzerritarren eta komunitarioen gaineko kontrol handiagoa ere.

Prebentzioa eta lan-segurtasuna areagotzea

Azken bost urteetan, Euskadin, batez beste, hogeita hamar heriotza baino gehiago gertatu dira lan-istripuen ondorioz. Ildo horretan, prebentzioa eta laneko segurtasuna oraindik ere indartu beharreko dimentsioak dira enpleguaren kalitatearen hobekuntzan, eta 2022an Laneko Segurtasun eta Osasun Estrategia onartu zen. Zifra horiei aurre egiteko, 2022an, Ikuskaritzak ezbehar-tasa eteten duen talka-plan bat hasi du, berriaz bideratuta istripu larri gehien detektatzen ari diren enpresetara, "big data"-ren bidez aukeratu ondoren enpresok. Mekanismo horri esker, haren eraginkortasuna % 50eraino igo da, eta, horrela, ezbehar-arrisku handia duten 100 enpresen zerrenda egin da. Administrazioak gertutik zainduko ditu enpresa horiek.



Lan-ikuskaritza indartzea

Erakunde horren zeregina indartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzaren 2022-2024 Kudeaketa Plana jarri da abian. Tresna horren bidez, erakunde hori indartu nahi da, langile guztientzako lan segurua, berdintasunezkoa eta eskubideduna bermatzeko. Esparru horretan, 3 ikuskaritza-plaza berri sortu dira 2022an. Horri dagokionez, Kudeaketa Planak gabeziak eta plazak handitzeko beharra aitortzen ditu, eta bi erronka handi aurreikusten ditu (i) euskal enpresei eta langileei laguntzea lan-merkatuaren eraldaketaren testuinguruan, eta (ii) Ikuskaritzaren antolaketa-garapena bultzatzea eskumen-egoera berriaren aurrean; horretarako, erabiltzaileei hurbiltzea eta horiek sentsibilizatzea proposatzen du, ikuskaritza-lanaren garrantziari buruz.

Erantzunkidetasuna eta lanaren eta familiaren kontziliazioa sustatzea.

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren aurreikuspenak aplikatzen jarraitu da, eta dauden kontziliazio-programak indartu dira. Ildo beretik, beste programa batzuk indartu dira, hala nola gurasotasuna gurasotasun positiboko programa, familiekin eta gizarte-, hezkuntza-, osasun- eta justizia-esparruekin harremanetan lan egiten duten profesionali zuzendua. Gainera, irailaren 7ko 102/2022 Dekretua sustatu da. Dekretu horren bidez, 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak ematen dira, eta, horrez gain, enpresentzako laguntza-lerro berriak jarri dira abian, familia-kontziliazio erantzukidea sustatzeko. Neurri ekonomikoetatik haratago, gobernuak aldaketa kultural baten alde egiten du, lana eta familia uztartzea hobetu eta seme-alaben nahiz inoren laguntza behar duten pertsonen zaintzan benetako erantzunkidetasunean aurrera egiteko.

Enpresa-eredu inklusiboago eta parte-hartzaileagoetarantz eboluzionatzea.

2019an Oñatiko Adierazpena onartu zenetik, etengabeko enpresa-eredu humanistago bat lortzeko bidean aurrera egitea erronka bat da antolaketaren eta enpresaren esparruan. Hain zuzen ere, Enpleguaren Euskal Estrategiaren helburuetako bat da orain enplegu-politika aktiboetan parte hartzen duten guztien eta gizarte-eragileen tresna integratzaile gisa eratzea, gizarte-elkarrizketan sakontzeko eta enpresa-kultura inklusiboagoa eta parte-hartzaileagoa bultzatzeko balio dezan. Hori sustatzeko, Adierazpen hori bultzatzeko jardunaldien bigarren edizioa antolatu da. Bertan, euskal enpresa txiki eta ertainak lan-munduaren eraldaketen ondorioz aurre egiten ari diren ondorioak aztertu dira. Erreforma sakonen testuinguruan, eta hiru trantsizio handi abian direla -teknologia-digitala, energetiko-klimatikoa eta gizarte- eta osasun-arlokoa, hain zuzen- ETEak dira euskal produkzio-sarearen zatirik handiena, eta langile askori ematen diete enplegua. Horregatik, eta une honetan laguntza gehien behar dutenak direlako horiek, jardunaldian zehar enpleguaren kalitatean aldaketa horiek guztiak nola eragiten ari diren hausnartu da.

Elkarrizketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomoa bultzatzea.

Gizarte Elkarrizketarako Mahaiak 2022ko Lan Plana onartu du. Horren bidez, dagoeneko martxan dauden lantaldeez gain, berriazko hiru lantalde berri jarri dira abian: Lan Ikuskaritzako planaren jarraipena; Osasuna eta Giza Baliabideen Kudeaketa; eta Erakundeen Partaidetzarako Lege Proiektua idaztea. Gainera, Lanbidek adostu du ERTE egoeran dauden eta urtean 20.000 € baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten langileei osagarriak ordaintzea. Horrela, Euskadi da pandemiak sortutako krisia hasi eta bi urtera laguntza horri eusten dion autonomia-erkidego bakarra.




3.

BERPIZTU 2023 Aurrekontuaren eta emaitzen aurreikuspena



2023rako AURREIKUSITAKO inbertsioen eta emaitzen laburpena



I. ARDATZAK – Ekonomia Suspertzea – 2.490 M€-ko aurrekontua aurreikusten du 2023rako, beheko taulan jasotako politiken arabera xehetasunarekin.

I. ARDATZEKO POLITIKAK - EKONOMIA SUSPERTZEA	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2023 (2)
1. INBERTSIOA AZPIEGITURA PUBLIKO EKONOMIKO ETA SOZIALETAN	2.976 M€	996 M€
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M€	622 M€
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA	357 M€	209 M€
4.- INDUSTRIA ETA ETEAK, ZERBITZU AURRERATUAK ETA NAZIOARTEKOTZEA (*)	1.164 M€	401 M€
5.- ELIKAGAIEN INDUSTRIA	613 M€	182 M€
6. MERKATARITZA ETA TURISMOAREN ETA KULTURAREN INDUSTRIA	313 M€	80 M€
I. ARDATZA (guztizko partziala) - EKONOMIA SUSPERTZEA	7.935 M€	2.490 M€
(*) ABALAK	3.700 M€	650 M€
I. ARDATZA, EKONOMIA SUSPERTZEA, GUZTIRA	11.635 M€	3.140 M€

1. oharra: 2020-2024 XII. Legegintzaldirako kalkulaturako aurrekontuei buruzko datuak, 2020ko irailaren 1etik aurrera.

2. oharra: 2023ko aurrekontuen datuak Eusko Legebiltzarrean 2022ko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik datoz.

2023ko aurrekontuaren eta enplegu-inpaktuaren aurreikuspena

II. ARDATZA – ENPLEGUA SORTZEA

II. ardatzak (Enplegua sortzea) 417 M€-ko aurrekontua aurreikusten du 2023rako, eta, beraz, 38.534 enplegu sustatzen laguntzea aurreikusten da, beheko taulan jasotako politiken arabera xehetasunarekin.

II. ARDATZEKO POLITIKAK - ENPLEGUA	2020-2024 aurreikuspena		2023ko aurreikuspena (2)	
	Inbertsioak (M€)	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
7. EKINTZAILAZA. ENPRESA BERRIAK	128 M€	10.790	38 M€	3.269
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA (3)	342 M€	42.100	86 M€	18.425
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK	577M€	26.110	140 M€	5.469
10.- RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZA BIRGAITZEA	406 M€	15.000	121 M€	4.343
11.- ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK (1)		10.720		500
12.- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA	162 M€	25.800	32 M€	6.529
II. ARDATZA - ENPLEGUA, GUZTIRA	1.615 M€	130.520	417 M€	38.534

1. oharra: Enplegu Publikoaren eskaintzei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapituluko Orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

2. oharra: II. Ardatzerako (Enplegua sortzea) 2022ko datuak honako txosten honetan daude oinarrituta: "Gainegiturak 210. Enplegu Plana". 2023an sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da, ondoren Programa hori sailek berrikusi eta eguneratu dute. LEPen kasuan, txostena egin den egunean, Administrazio Orokorreko plazei buruzko datua baino ez dago (500), eta gainerako eremuei dagozkienak zehazteke daude.

3. oharra: 2020-2024 aldirako hasierako aurreikuspeneko Enplegurako Prestakuntzako jardueretan erabilitako laneratze-tasa, zuhertasun-irizpideagatik, murriztaileagoa izan zen (% 25) kudeaketa-mandatutik eratorritakoa baino (% 45). Laneratze-tasa hori (%45) erabili da 2023an enpleguan izandako eragina kalkulatzeko, Hezkuntza Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak (Lanbide) emaitzen benetako esperientzian oinarrituta emandako jarraibideen arabera.



2023ko beste emaitza batzuen aurreikuspena

Enpleguak sustatzeaz gain, Berpiztu programak **jarduera ekonomikoan beste eragin batzuk** ere izango dituela uste da, **eta 1.628 enpresa berri** sortzen lagunduko duela (mikroETEak eta autonomo berriak barne); **I+G+b arloko 175 proiektu** bultzatu eta finantzatuko **dituela**; eta 2.200 industria-enpresa modernizatzen eta hedatzen lagunduko duela.

ADIERAZLEAK	Aurreikusitako emaitzak 2020-2024	2022rako aurreikusitako BERPIZTU emaitzak
SORTUTAKO ENPRESA BERRIAK	6.000	1.628
Mikroekintzailletza berriak eta pertsona autonomoak	5.000	1.365
Enpresa berritzaile berriak	1.000	263
EUROPAKO I+G+b PROIEKTUAK	600	175
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen Europako I+G+b proiektuak (*)	600	175
LAGUNDUTAKO ETE INDUSTRIALAK	10.000	2.200
Nazioartekotzeko	1.500	350
Modernizatze eta hedatzeko	1.500	350
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	250
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	450
Produktu berriak garatzeko	4.000	800

Oharra: Berpiztu programaren aurreikuspenak

(*) Hasierako aurreikuspenak (2020-2024) Europako I+G+b arloko 600 proiektura eguneratu dira, Europako "Horizonte Europa" ikerketa-programa berria abian jartzeko atzerapena eta programa horretan ezarritako baldintza berriak kontuan hartuta.





4.

BERPIZTU 2020-2023 Aurrerapen orokorra



2020-2023 aldian metatutako aurrekontuaren aurrerapena

Ondoren, 2020an, 2021ean eta 2022an exekututako aurrekontuaren eta 2023an I. ardatzerako (Ekonomia suspertzea) aurreikusitako aurrekontuaren aurrerapen-ikuspegi orokor metatua dago adierazita.

I. ARDATZEKO (EKONOMIA SUSPERTZEA) POLITIKAK	Aurreikuspena 2020-2024 (M€)	2020an exekututakoa (XII. legealdia, irailetik abendura) (1)	Exekututakoa 2021 (1)	Exekututakoa 2022	Exekuzio metatua 2020-2022	Aurreikuspena 2023 (2)	2020-2023 Aldirako Aurrerapen metatua
1. AZPIEGITURA PUBLIKO EKONOMIKO ETA SOZIALETAN INBERTITZEA	2.976 M€	341 M€	702 M€	794 M€	1.837 M€	996 M€	2.833 M€
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M€	264 M€	522 M€	595 M€	1.381 M€	622 M€	2.003 M€
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA	357 M€	39 M€	136 M€	133 M€	308 M€	209 M€	517 M€
4. INDUSTRIA ETA ETE-AK, ZERBITZU AURRERATUAK, SORMEN-INDUSTRIAK ETA NAZIOARTEKOTZEA (*)	1.164 M€	236 M€	287 M€	316 M€	839 M€	401 M€	1.240 M€
5. ELIKAGAIGINTZA	613 M€	110 M€	166 M€	226 M€	501 M€	182 M€	683 M€
6. MERKATARITZA ETA TURISMOAREN ETA KULTURAREN INDUSTRIA	313 M€	25 M€	129 M€	120 M€	274 M€	80 M€	354 M€
I. ARDATZA (EKONOMIA SUSPERTZEA), GUZTIRA	7.935 M€	1.015 M€	1.942 M€	2.183 M€	5.139 M€	2.490 M€	7.630 M€
(*) ABALAK	3.700 M€	1.100 M€	650 M€	650 M€	2.400 M€	650 M€	3.050
I. ARDATZA (EKONOMIA SUSPERTZEA), GUZTIRA	11.635 M€	2.115 M€	2.592 M€	2.833 M€	7.539 M€	3.140 M€	10.680 M€

1. oharra: 2020ko exekuzio-zifrak irailetik abendura bitarteko aldiari dagozkio, eta egozpena, 2020an exekututako aurrekontu osoaren % 61. 2021 eta 2022ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

2. oharra: 2023ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2022ko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.



Ondoren, 2020an, 2021 eta 2022ean exekututako aurrekontuaren eta 2023rako aurreikusitako aurrekontuaren aurrerapen orokor metatua eta II. ardatzerako (Enplegua sortzea) enplegua suspertzeko egindako ekarpena adierazten dira.

II. ARDATZEKO (ENPLEGUA SORTZEA) POLITIKAK	Aurreikuspena 2020-2024 (1)		2020an exekututakoa (XII legealdia, irailetik abendura) (2)		2021an exekututakoa		2022an exekututakoa (3)		Exekuzio metatua 2020-2021		Aurreikuspena 2023 (4)		Aurrerapen orokor metatua 2020-2023	
	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
7. EKINTZAILETZA. ENPRESA BERRIAK	128 M€	10.790	15 M€	1.674	25 M€	2.353	34,6 M€	2.657	75 M€	6.684	38 M€	3.269	113 M€	9.953
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	342 M€	42.100	31 M€	3.967	78 M€	12.145	71,3 M€	17.982	180 M€	34.094	86 M€	18.425	266 M€	52.519
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK	577 M€	26.110	60 M€	4.970	109 M€	6.371	118,0 M€	4.689	287 M€	16.030	140 M€	5.469	427 M€	21.499
10. RENOVE PROGRAMAK. ERAIKINEN BIRGAIKUNTZA	406 M€	15.000	51 M€	3.225	76 M€	3.079	93 M€	3.475	220 M€	9.779	121 M€	4.343	341 M€	14.122
11. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK		10.720	--	2.538	--	3.988		8.764		15.290		500		15.790
12. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA	162 M€	25.800	11 M€	2.519	27 M€	5.605	51,2 M€	6.291	90 M€	14.415	32 M€	6.529	122 M€	20.944
II. ARDATZA (ENPLEGUA SORTZEA), GUZTIRA	1.615 M€	130.520	168 M€	18.893	315 M€	33.541	368 M€	43.859	852 M€	96.292	417 M€	38.534	1.269 M€	134.827

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, legealdia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (2020ko iraila). Enplegu publikoaren eskaintzei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. kapitulu orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

2. oharra: II. ardatzeko (Enplegua sortzea) aurrekontu-exekuzioa eta enpleguan duen eragina irailetik abendura bitartekoak dira, eta 1. ardatzeko (Ekonomia suspertzea) aurrekontu-exekuzioaren egozpen-maila bera aplikatuta kalkulatu dira (2020ko aurrekontuaren % 61).

3. oharra: 2022ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datu horiek eta enpleguari buruzkoak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko datuak izatean berrikustea.

4. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2023ko datuak gobernuaren «Gainegiturei buruzko 210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira, eta sailen kontraste osagarria dute. 2023an bultzatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da (sailek ondoren berrikusi eta eguneratu dute). LEPen kasuan, txostena egin den egunean, Administrazio Orokorreko plazei buruzko datua baino ez dago (500), eta gainerako eremuei dagozkienak zehazteke daude.



Beste emaitza metatu batzuen aurrerapena (2020-2022)

Ondoren, jarduera ekonomikoko beste inpaktu batzuen ikuspegi metatu orokorra jasotzen da (2020-2023). Horretarako, kontuan hartu dira enpresa berriak sortzea (mikroETEak eta autonomo berriak barne), I+G+Baren arloko proiektuak bultzatu eta finantzatzea eta industria-enpresei modernizatzen eta hedatzen laguntzea.

ADIERAZLEAK	2020-2024 aldian aurreikusitako emaitzak	2020ko emaitzak (XII. legealdia, irailetik abendura) (1)	2021eko emaitzak	2022ko emaitzak	Emaitza metatuak 2020-2021	BERPIZTU 2023 Programaren aurreikuspena (2)	Emaitza metatuak (2020-2023)
ENPLEGUAK GUZTIRA	130.000	18.893	33.541	43.700	96.134	38.531	134.665
GAZTEEN ENPLEGUAK	25.800	2.519	5.605	6.291	14.415	6.529	20.944
SORTUTAKO ENPRESA BERRIAK	6.000	660	1.075	1.622	3.357	1.628	4.984
Mikroekintzailtza eta autonomo berriak	5.000	545	891	1.492	2.927	1.365	4.292
Enpresa berritzaile berriak	1.000	115	184	130	430	263	692
I+G+B-AREN ARLOKO EUROPAKO PROIEKTUAK	600	97	116	333	546	175	721
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen I+G+Baren arloko Europako proiektuak (3)	600	97	116	333	546	140	686
LAGUNDUTAKO ETE INDUSTRIALAK	10.000	1.330	2.933	2.782	7.045	2.200	9.245
Nazioartekotzeko	1.500	170	279	272	721	350	1.071
Modernizatzeke eta hedatzeko	1.500	214	644	625	1.483	350	1.833
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	238	767	790	1.795	250	2.045
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	231	293	211	735	450	1.185
Produktu berriak garatzeko	4.000	477	950	884	2.311	800	3.111

1. oharra: XII. legealdiaren hasieratik aurrerako jarduera ekonomikoko emaitzen egozpena kalkulatzeko (irailetik abendura), I. ardatzaren (Ekonomia suspertzea) exekuzio ekonomikoaren egozpen-maila bera aplikatu da (% 61, 2020ko aurrekontuan). Abiapuntuko datuak 2020ko emaitzen memorietatik hartu dira.

2. oharra: 2023rako kalkulaturako emaitzak Berpiztu Programaren aurreikuspenetakoak dira.


3. oharra: Hasierako aurreikuspenak (2020-2024) Europako I+G+b arloko 600 proiektutara eguneratu dira, Horizonte Europa europar ikerketa-programa berria abiarazteko atzerapena eta programa horretan ezarritako baldintza berriak kontuan hartuta. Era berean, 2021eko emaitza zuzendu da (50 proiektu izatetik 116 izatera igaro da, behin Europako Ataria eguneratuta, H2020tik Horizonte Europa)



1. eranskina

BERPIZTU 2022


Aurrekontuaren exekuzioaren
xehetasunak, emaitzak eta
ekintza nagusiak





I. ardatza – Ekonomia suspertzea

2022ko Berpiztu Programa

- 1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea
 - 2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala
 - 3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa
 - 4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea
 - 5. politika. Elikagaigintza
 - 6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria
- 



1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

EAE-KO GARRAIO JASANGARRIAREN 2030EKO GIDA PLANA

TRENBIDE-AZPIEGITURAK

Tren-azpiegituretan garatutako jarduera proiektu handien aurrerapenarekin islatu da. Alde batetik, Euskal Trenbide Sarearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko hitzarmena sinatu da, Bilboko metroaren 5. linea eraiki eta finantzatzeko (linea horrek Galdakaori emango dio zerbitzua, eta Usansoloko Ospitaleraino hedatuko da), eta metroaren 4. lineari buruzko informazio-azterlana ere argitaratu da, Irala eta Errekalderaino iritsiko dena. Bestalde, AHTa Euskadira iristeko urratsak eman dira, Espainiako Gobernuarekin Bilbon eta Gasteizen trenbide-integrazioarako protokoloak sinatuta. Protokolo horiek dagozkien kudeaketa-gomendioetan gauzatuko dira. Era berean, aipatzekoa da Anoetako geltokia osorik eraberritzeko proiektuaren lizitazioa argitaratu dela eta topoaren trenbide-saihesbideko Logaritz-Mirakontxa zatiko obrak amaitu direla.

OSASUN-AZPIEGITURAK

Azpiegitura fisikoei eta instalazioei dagokienez, Galdakao, Basurto eta Donostiako ospitaleak handitu dira, eta bertan protonterapiako eraikin berri bat eraikiko dela iragarri da. Halaber, Txagorritxuko zainketa intentsiboetako unitatearen eta neonatologiako unitatea zerbitzu orokorren eraikin berrira lekualdatu dira, baita Arabako ESlaren obstetrizia-blokea ere. Beste lan batzuk ere nabarmentzekoak dira, hala nola Zallako Espezialitateen Zentro berria eta Aretxabaletako osasun-zentroa eraikitzen hastea; Ordiziako osasun-zentroa handitzea; Deba Garaiko Arrasateko Ospitaleko pabiloi zaharra eraisteko lanak, handitu aurretik; Bermeoko osasun-zentroa berritzea eta Santa Marina Ospitalean zazpi gune modernizatzea. Osasun-ekipoetako inbertsioari dagokionez, erresonantzia magnetikoko bi makina erosi dira Santiago-Arabako Unibertsitate Ospitalean, eta erresonantzia magnetikoko beste bi makina Bilboko ESlan, irudi bidezko diagnostikoko azken teknologiko bi ekipo Gurutzetan. Eremu farmakologikoan, egoitzetarako farmazia-prestazioko zentroa (Farmabide) martxan jartzeak aurrerapen handia ekarri du arreta klasikoko ereduari.

PORTUETAKO AZPIEGITURAK

2022an hainbat portu-proiektu hasi dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira: Hondarribiako portuaren kanpoko dikea sendotzeko obrak, Orioko portuko arrantza-kaia konpontzeko obrak eta Pasaiako portuan hirugarren sektoreko erabilerarako eraikin berri bat eraikitzea. Mutrikuko porturako itsas sarbideak hobetzeko lanak amaitzea helburu duen kontratua ere gauzatzen hasi da.

HEZKUNTZA-AZPIEGITURAK

Hezkuntza-sistema digitalizatzearen aldeko apustuari eusten zaio. Horrela, Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako 2022-2024 Plan Estrategikoaren pean, ikastetxe publikoek behar duten material informatikoa hornitzeko, instalatzeko eta konfiguratzeko esparru-akordioa egiteko baimena eman da, eta zuzeneko dirulaguntzak eman zaizkie "5.0 zentro adimendunak" proiektuan parte hartzen duten itunpeko ikastetxe pribatuei. Lanbide Heziketaren digitalizazioan ere aurrera egin da, 13 lkasmak-en erosketarekin. Era berean, Hezkuntza Azpiegituren Planaren esparruan, hainbat obra egikaritzen ari dira, hala nola Zumaia, Etxeberri eta Orixeko Bigarren Hezkuntzako Institutuei dagozkienak.

ETXEBIZITZA-AZPIEGITURAK

Inbertsio Estrategikoetarako Erakunde Arteko Plana aurkeztu da, 12 udalerritako auzoen hiri-berroneratzerako eta enplegurako, eta auzo kalteberen hiri-berroneratze integralerako dirulaguntzak jaso dituzte. Era berean, dirulaguntzen programa bat jarri da abian, bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzea sustatzeko, egiturazko erreformen, irisgarritasunaren eta energia-eraginkortasunaren bidez. Nabarmentzekoa da, halaber, 2022-2035 Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala sinatu izana. Itun horren helburua da alokairu eskuragarriaren eskaintza publikoa handitzea eta egungo birgaitze-mailak bikoiztea, etxebizitzek erosotasun-, irisgarritasun- eta energia-eraginkortasuneko baldintza ezin hobeak izan ditzaten (15 urteren buruan, 350.000 etxebizitza).



1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

AZPIEGITURA HIDRAULIKOAK

Uraren Euskal Agentziak, URAK, hainbat obra egin ditu uholdeetatik babesteko. Besteak beste, honako hauek nabarmendu behar dira: Urumeako ibilgua handitzeko 2. fasea amaitzea, Trañapadurako industrialdera sartzeko zubi berria eraikitzen hastea, eta Ibaizabal Galdakaotik igarotzean uholdeetatik babesteko obrak egitea. Beasaingo Udalak, CAFek eta URAK hitzarmena sinatu dute Oria ibaia Beasaindik igarotzean ur-goraldietatik babesteko obrei ekiteko. Goiainen (Araba) estazio hidro-meteorologiko berri bat jarri da martxan, datu meteorologiko publikoak emango dituen eta denbora errealean zabalduko dira Euskalmeten webgunean..

KULTUR AZPIEGITURAK

2021etik 2023ra bitartean, Euskadiko kultura-elementu garrantzitsuak berreskuratzeko eta balioesteko proiektuak garatzen ari dira, lehentasunezko jarduera-eremuen esparruan: Sestaoko Labe Garaiak, Zallako La Güata, Albaola, Erreterriako Agustinak, Aiaraldea: Audio, Urduña eta Artziniega.

BESTE AZPIEGITURA BATZUK

Euskadi eta Araba Europako ardatz atlantikoaren hegoaldeko erreferentziazko nodo logistiko garrantzitsuena dira, Bilbao-Foronda-Jundiz-Arasur portuaren ardatzaren sendotzeari esker. Horri dagokionez, aipatzekoak dira Arasur industrialdean datu-zentroa garatzea eta Bilboko Portu Autonomoarekin trenbidez lotzea; Forondako aireportua Estatuko iparraldeko zama-aireporturik garrantzitsuena izatea; ADIFek Jundizko plataforma intermodal eta logistikoaren proiektua esleitzea; eta banaketa logistikoko operadore handiak instalatzea. Nabarmentzekoak dira, halaber, Espainiako Gobernuak Bilbo, Durango, Eibar eta Lasarte-Oriako udalekin egindako hitzarmenak, Next Generation funtsak baimentzeko, udalerrri horietako auzo kalteberen hiri-berroneratze integralerako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko egoitza-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak gauzatzeari dagokionez.

1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

Taula honetan, 2022an ekonomia- eta gizarte-azpiegitura publiko berriak sustatzeko exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2022 (2)	Exekuzioa 2022 (3)
Trenbide-azpiegiturak	1.563 M€	368 M€	360 M€
Portuetako azpiegiturak	102 M€	31 M€	17 M€
Osasun-azpiegiturak (fisikoak eta digitalak)	323 M€	110 M€	129 M€
Azpiegitura hidraulikoak	120 M€	34 M€	34 M€
Etxebizitza-azpiegiturak	285 M€	100 M€	96 M€
Hezkuntza-azpiegiturak (fisikoak eta digitalak)	451 M€	128 M€	122 M€
Kultur azpiegiturak	132 M€	36 M€	36 M€
1. POLITIKA, GUZTIRA	2.976 M€	807 M€	793 M€

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2022ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021eko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2022ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.



2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO PLANA: ZTBP 2030 (+ aurrekontuen hazkundearen urteko % 6)

TEKNOLOGIA- ETA INDUSTRIA-LIDERGOA

Ikerketa teknologiko-industrialak enpresa-sektorerako I+G proiektuei laguntzeko programen deialdietara bideratutako baliabideak indartu ditu (Hazitek eta Elkartek). Azpitek 2022 azpiegitura zientifiko-teknologikoei laguntzeko programa ere onartu da.

Osasun-arloko ikerketak % 10eko gehikuntza izan du osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetara bideratutako aurrekontuan (Innosasun, Medtech eta Baliosasun programak). Bereziki, haurren minbiziari buruzko ikerketa-proiektuetarako laguntza espezifikoen programa bat nabarmentzen da. Oncomatrix euskal enpresa biofarmazeutikoak, Eusko Jaurlaritzaren partaidetzarekin, tumore metastasikoak dituzten gaixoen antigorputz baten saiakuntza klinikoak hasteko baimena lortu du Estatu Batuetan eta Espainian. Proiektu hori Hazitek programaren bidez finantzatu da.

Bestalde, elikagaien ikerketan egindako inbertsioa Itsaslur ekimen sozioenpresarialari emandako laguntzaren bidez gauzatu da. Itsaslur Muskizko nekazaritzako elikagaien berrikuntzarako zentroa da, eta 50 pertsona enplegatuko ditu, horietatik % 70 laneratzekoak.

2022ko Enpresa Txiki eta Ertainen Planaren barruan, "Industria Digitala" programa nabarmentzen da, teknologia digital eta jasagarrien bidez euskal enpresen lehiakortasuna bultzatzera bideratua. Era berean, Zeharkako Ekimen Traktoreak abiarazteko Batzordeak eratu dira, eta Ikerketa eta Garapeneko Zeharkako Proiektu Traktore Kolaboratiboak diseinatzeko programa onartu da. Programa hori, hasiera batean, Zahartze Osasungarria, Mugikortasun Elektrikoa eta Ekonomia Zirkularra eremuetara zuzenduta zegoen.

TALENTUA

Talentu zientifikoaren erakarpina bultzatzen jarraitzen da Ikerbasqueren eta ERC Fast Track, Research Fellows, Research Associate eta Research Professor programen bidez. Halaber, Bikaintek 2022 programak euskal enpresa eta zentro teknologikoetan (ZTBES) teknologoak sartzera ahalbidetu du, industria-doktoretzak egiteko. Ikertzaile gazteen prestakuntzarako laguntzak ere mantentzen dira, Postdoc eta Predoc programen bidez, eta, aldi berean, nekazaritza-, arrantza- eta elikagaigintza-sektoreari zuzendutako IkerTalent programa indartzen da..

BERRIKUNTZA IREKIA

Eusko Jaurlaritzak 4 urteko ulermen-memorandum bat sinatu du Airbusekin, iraunkortasuneko eta digitalizazioko arlo estrategikoen garapen potentzialaren azterketan elkarrekin lan egiteko esparru bat ezartzen duena, eta lau lankidetzaren eremu azpimarratu ditu: I+G+B, talentua, industrializazioa edo tokiko hornitzaileen eta espazioaren oinarria indartzea. Horrez gain, nabarmentzekoa da Zibersegurtasuneko Euskal Zentroa martxan jarri dela eta Basque Artificial Intelligence Center (BAIC) sortu dela.

BIKANTASUN ZIENTIFIKOA

IKUR 2030 estrategiarekin bat datozen ikerketa-eremu estrategikoetarako dirulaguntzak eman dira (biomedikuntza, neurozientziak, superkonputazioa, komunikazio kuantikoak edo material aurreratuak). Azken eremu horri dagokionez, nabarmentzekoa da Euskadi Material Aurreratuaren I+G+b arloko Estatuko programa batean sartu dela. Era berean, EAEko 3 unibertsitateek lehentasunezko 3 esparrutan programak eta ekintzak finantzatzeko dirulaguntzak jaso dituzte: unibertsitateko eraldaketa digitalean; Unibertsitatea + Hezkuntza proiektuetan; eta osasun-ikasketetako programetan. Beste ikerketa-zentro batzuek ere jaso dituzte proiektu espezifikoetarako laguntzak (BC3, Ikerbasque, Donostia International Fundazioa eta Tecnalia).

EHUK Cuanttica EHU Quantum Center-en berezko zentroa sortu du. Zentro horrek funtsezko ikerketa, ikertzaileen prestakuntza eta ezagutza gizarteari eta enpresei aplikazio berriak helaraztea bilduko ditu. Aldi berean, Ibaetako campusean bikaintasuneko oinarritzko ikerketara bideratutako eraikin berri bat eraikitzea bultzatu da.

Ikerketa sanitarioaren esparruan, 2022-2025 Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Euskal Estrategia Berria onartu da. Estrategia horren bidez, asmoa da Euskadi aukeratu dezatela estatu osoko erreferentziazko zerbitzu- eta unitate-zentro (CSUR) gisa 12 patologia konplexuren tratamenduan.



2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala

Taula honetan, 2022an ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala sustatzeko exekutatutako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

2. politika. Ikerketa, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	Aurreikuspena 2020-2024	Aurreikuspena 2022	Exekuzioa 2022
Ikerketa zientifikoa eta unibertsitatekoa (*)	784 M€	171 M€	152 M€
Ikerketa teknologikoa eta industrial	1.016 M€	253 M€	305 M€
Elikaduraren ikerketa eta garapena	119 M€	30 M€	32 M€
Osasun-ikerketa (*)	265 M€	58 M€	50 M€
Berrikuntza publikoa eta Administrazio digitala	107 M€	22 M€	22 M€
Berrikuntzako Funts Estrategikoa	221 M€	53 M€	33 M€
2. POLITIKA, GUZTIRA	2.512 M€	587 M€	594 M€

(*) Unibertsitate- eta osasun-ikerketan diharduten langileen gastuak barne hartzen ditu

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2022ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021ko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2022ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa

EUSKADIKO ESTRATEGIA ENERGETIKOA, INGURUMEN-ESTRATEGIA ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ESTRATEGIA

2022an, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plan Estrategikoa eta 2021aren amaieran onartutako Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa jarri dira abian, eta, gainera, honako plan hauek gauzatzen ari dira: 2030eko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana; 2030eko Biodibertsitatearen Estrategia; 2030eko sektore publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Plana; 2030eko Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako Plana; 2030eko Euskadiko Estrategia Energetikoa eta 2050eko Klima Aldaketaren aurkako Estrategia. Mugikortasun Elektrikoaren Euskal Estrategia eta Euskadiko Kontingentzia Energetikoaren Plana onartu dira.

ENERGIAREN ETA BALIABIDEEN ERABILERA ERAGINKORRA

Net-Zero Basque Industrial Super Cluster ekimenak bere lehen fasea jarri du abian, euskal kluster eta enpresa nagusiek 2050ean zero emisio garbiko helburuak lor ditzaten. Horri dagokionez, SPRI Taldearen eta EPRI ikerketa zentro estatubatuarraren arteko akordio bat lortu da, deskarbonizazio-teknologiak batera identifikatzeko. Horrez gain, berriazko laguntzak eman dira energia-eraginkortasunerako eta energia berriztagarrien erabilerarako inbertsioak egiteko Euskadiko Tokiko Administrazio Publikoaren sektorean (Gauzatu Energia) eta egoitzen sektorean (autokontsumoarekin eta energia-iturri berriztagarriekin biltegiatzearekin eta sistema termiko berriztagarriekin lotutako pizgarriak).

NATURA-ONDAREA ZAINTEZA ETA KLIMA-ALDAKETAREN AURKA BORROKATZEA

Legegintza-mailan aurrera egin da 2021aren amaieran Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legea onartu zenean. Barne Arroen Lehorteen Plan Berezia egin da, eta Txingudiko Badiaren inguruko naturguneen konektibitatea lehengoratzeko eta hobetzeko jarduketek aurrera jarraitzen dute. Era berean, Eusko Jaurlaritzak Klima Aldaketaren eta Itsasertzaren Kongresuan (Uhinak) aurkeztu ditu Life Urban Klima 2050 proiektuaren aurrerapenak eta Kostaegoki euskal itsasertzaren kalteberatasunari buruzko txostena, bai eta Regions4Climate ere, Europako Batzordeak Eusko Jaurlaritzari emandako proiektu berria, larrialdi klimatikoari irtenbide berritzaileak bilatzeko Horizon Europe programaren barruan. Aipatzekoa da, halaber, Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Panelaren (IPCC) topaketa zientifikoa izan dela aurten Bilbon.

ENERGIAREN ELEKTRIFIKAZIOA

Eusko Jaurlaritzaren eraikinen birgaitze energetikoak aurrera jarraitzen du, % 100 berriztagarria den energia elektrikoa eskuratuz.

GARRAIO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIAK ETA ADIMENDUNAK LEHENESTEA

Mugikortasun eraginkorra eta iraunkorra sustatzeko, Moves programa gauzatu da, ibilgailu elektriko eta hibrido entxufagarrien erosketak babestuz eta bizikleta elektrikoak kargatzeko puntuak eta mailegatzeko sistema berriak instalatzeko dirulaguntzak emanez. Era berean, MUBIL Fundazioak eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) lankidetzahitzarmen bat sinatu dute, MUBILen estrategia mugikortasun iraunkorren eta adimentsuaren polo gisa sendotzeko eta esparru hori Euskadin bultzatzeko. 2022ko irailetik abendura bitartean, herritarrek garraio publikoaren tarifen % 50erainoko hobaria izan dute, garraio publikoa sustatzeko, pribatuari pizgarriak kentzeko eta CO2 isurketak murrizteko.

INGURUMENA BABESTEA

Jasangarritasunarekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa Euskadiko Enpresa Txiki eta Ertain Zirkularraren Programaren bidez islatu da. Programa horrek 500 enpresa txiki eta ertain mobilizatu nahi ditu ekonomia zirkularrean aurrera egiteko, eta dagoeneko eman dizkie laguntzak ingurumen-erronkei erantzuten dieten 12 proiekturi, 106 enpresak parte hartzen dutelarik. Era berean, Euskadiko Lurzorua Babesteko 2030 Estrategia aurkeztu da. Estrategia horretan 69 ekintza dituen plan bat zehaztu da. Ildo horretan, ahalegin estraterikoa eta ekonomiko handia egin da industria-lurzoru zaharrak berronertzeko, 32 udalerritan egindako 35 jarduketek bidez. Herritarren konpromisoa ere bultzatzen da, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuengatik ingurumen-boluntariotzako proiektuetarako dirulaguntzen bi programa hedatuz.



3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa

EUSKADIKO ESTRATEGIA ENERGETIKOA, INGURUMEN-ESTRATEGIA ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ESTRATEGIA

TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA INGURUMENEOA

Inbertsio estrategikoen erakunde arteko plan bat onartu da, foru-aldundiekin lankidetzan, mugikortasunarekin eta energiarekin, hidrogenoarekin, osasunarekin, zainketekin eta digitalizazioarekin lotutako proiektuak aurreratzeko. BH2C Hidrogenoaren Euskal Korridorearen asoziazioaren sendotzeak eta Euskadik Nafarroa, Aragoi eta Kataluniarekin batera Hidrogenoaren Ebroko Korridoreari buruz sinatu duen ageriko gutunak behin betiko bultzada eman diote hidrogeno berdearen aldeko euskal apustuari, energia garbiaren iturri osagarri gisa.

Era berean, Repsol Fundazioarekin lortutako akordio estrategiko bat nabari da, trantsizio energetiko justu eta inklusiboa sustatzen duten proiektu eta ekimenetan laguntzeko helburuarekin.

2030eko Ekonomia Zirkularraren Estrategiaren barruan, ETEetan ekonomia zirkularra sustatzeko laguntzak (ETE Zirkularra Programa) eta ekodiseinuan eta ekonomia zirkularrean aliantza publiko-pribatuaren akordioa nabarmendu behar dira. Azken horri dagokionez, enpresen ingurumen-aztarna neurtzeko tresna bat aurkeztu da.

BasqueVolt proiektua jarri da abian, lankidetzan publiko-pribatukoa. Egoera sendoko gelaxkak egingo dituen Europako lehen gigafaktoria izango da, eta auto elektrikoaren inguruko teknologia aurrera egitea ahalbidetuko du.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK BULTZATZEA, TEKNOLOGIA BERRIAK INTEGRATUTA

Energia garbiak bultzatzen jarraitzen da, Euskadin kontsumitutako energiaren % 20 iturri berriztagarrietatik etor dadin. Horretarako, aurrera egin da Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiten. Energia berriztagarriko azpiegitura berriak sartzeko laguntza ere eman da, Etxabarri-Ibiñako Ekiolako parke fotovoltaikoari argi berdea emanez eta Azazeta eta Labrazako parke eolikoen proiektuan aurrera eginez. Era berean, laguntza ematen ari zaie, Ekiola sozietatearen bidez, Jaurlaritzaren eta herritarren partaidetza duten energia-kooperatibei, hala nola Agurain, Amurrio, Araia, Kuartango eta Zigoitiakoei edo Gorbeialdeko energia-kooperatiba berria eraikitzeari. Gainera, bioerregaien, aerotermiaren eta geotermiaren bultzadari esker, aurrera egiten ari da helburuan.

Autokontsumoari eta energia-iturri berriztagarrien bidez biltegitratzeari lotutako pizgarrien programa bat hedatu da, eta ekonomiaren hainbat sektoretan energia-eraginkortasunaren eta eguzki-energia termikoaren arloan inbertsioak egiteko laguntzetara bideratutako baliabideak eta asmamenak gehitu dira.

Zehazki, 2022an itsasoko teknologia energetiko berriztagarrien garapenarekiko konpromisoa nabaria da. Aurten, Bilbon egin da Wind Europe-ren Urteko Konferentzia. Konferentzia horretan, Eskualde Atlantikoek Itsasoko Energia Berriztagarriei buruzko Adierazpena sinatu zuten, eta era horretako teknologiak erakusteko eta baliozkotzeko inbertsioetarako laguntza-programa ere indartu da.

3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa

Taula honetan, 2022an energia- eta ingurumen-trantsizioa sustatzeko exekututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa	Aurreikuspena 2020-2024	Aurreikuspena 2022 (2)	Exekuzioa 2022 (3)
Energiaren eta baliabideen erabilera eraginkorra	86 M€	66 M€	38 M€
Teknologia berrietan oinarritutako energia berriztagarriak bultzatzea	48 M€	36 M€	21 M€
Garraio eta mugikortasun jasangarriak eta adimendunak lehenestea	81 M€	62 M€	35 M€
Ingurumena babestea	57 M€	17 M€	16 M€
Natura-ondarea zaintzea eta klima-aldaketaren aurka borrokatzea	85 M€	25 M€	23 M€
3. POLITIKA, GUZTIRA	357 M€	206 M€	133 M€

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2022ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021eko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2022ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

INDUSTRIA GARATZEKO ETA NAZIOARTEKOTZEKO 2021-2024 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA (2021ean onartua)

TRANSIZIO TEKNOLOGIKOA ETA DIGITALA. BASQUE INDUSTRY 4.0

Datuen digitalizazioaren eta ekonomiaren aro berriaren aldeko apustua gauzatu da, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Plan Estrategikoa eta Euskadiren eraldaketa digitalerako Estrategia onartuz. Euskaltelekin, Teknei Taldearekin eta Dominioneekin batera, Atlantic Data Infrastructure (ADI), Euskadiko Data Center, bultzatu da. Lehen mailako datu-zentro handi gisa sortu da, eremu atlantikoko enpresen eta erakundeen eraldaketa digitala bultzatzeko, eta beste Data Center batzuk sortuko dira Arasur industrialdean eta Guardian.

Emaitek Plus 2022 I+G-rako laguntza-programa gauzatu da, Foku Anitzeko Teknologia Zentroyen eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroyen emaitzak eta gaitasunak hobetzeko eta merkatura bideratzeko. Horretarako, I+Gko balio-kate osoan zehar lan egin da, eta ezagutza berriak eskuratzera bideratu da, etorkizunerako aurreikuspenekin. Renove 4.0 programa ere abiarazi da, makineria eta/edo ekipamendu aurreratuak (hardwarea eta softwarea) erosteko, 4.0 industriako proiektuetarako, ETE industrialetan fabrikazio aurreratuaren eta produktu-prozesuarekin lotutako zerbitzuen esparruan teknologiak aplikatzera bideratuak, eta 5G teknologiko sare bat sartu da hiru parke teknologikoetan.

ETE-EN BERRIKUNTZARAKO LAGUNTZA EMATEA

2022ko Enpresa Txiki eta Ertaintentzako Laguntza Plana onartu da. Bertan jasotzen denez, 74 laguntza-programa jarriko dira abian berrikuntzaren, inbertsioaren, nazioartekotzearen eta lehen sektorearen garapenaren arloetan. ETEen digitalizazioa sustatzeko programak gauzatu dira (Industria Digitala, Hazinova, Basque Industry 4.0 eta Konexio 2022).

KRISIAN DAUDEN SEKTOREAK LAGUNTZEA ETA AZPIEGITURAK INDARTZEA

Zailtasunak dituzten edo berregituratze-beharrak dituzten enpresei laguntza ematen zaie, trantsizio teknologiko-digitalari eta energetiko-ingurumenekoari aurre egiteko, eta indartu, Bideratu Berria, Bideratu Covid-19 eta Lortu programen bidez jarraitzen du. Spirilurrek Legazpiko Sidernor zaharra berrurbanizatzeko lehen fasea amaitu du, eta Santurtziko Etxe Uliko orube kutsatua erosi du industria-ekimenak hartzeko.

INDUSTRIA-GARAPENA, RESHORINGA ETA FINKATZEA

Pandemiak eragindako EAEko industria-ehunari emandako laguntzarekin jarraituz, Bilakatu Covid-19 programak indartzen jarraituko da, dibertsifikazio- edota birlokalizazio-prozesuetarako inbertsio produktiboetara zuzenduta, gaitasun berriak (negozioa, produktuak, zerbitzuak, merkatuak) edota beste eskualde batzuetan kanporatutako gaitasunen birlokalizazioaren edo reshoring-aren bitartez; baita Bateratu programa ere, bat egiteko edota xurgatzeko planak egiteak sortutako inbertsio produktiboetarako. Era berean, enpresen kapital-egituraren sendotasuna babesten jarraitu da, zuzkidura Finkatuz funtsera gehituz (% 3 CAFen erosketa eta % 6 ITP Aeroren erosketa). Azkenik, nabarmendu behar da Elkargi elkarrekiko berme-baltzuak mailegu-lerro berri bat abiarazi duela, baldintza onuragarrietan, industria bultzatzeko. Karga mineral ekologikoak ekoizteko paper-hondakinen balorizazio materialerako lehen plantaren proiektuan aurrera egin da. Espainian lehen planta izango da, eta 2024an hondakinen isurketa minimizatzeko eta instalazioen autosufizientzia bermatzeko ibilbide-orria aurkeztu da.

ZERBITZU AURRERATUAK ETA SORMEN-INDUSTRIAK

Europa Hegoaldeko ekonomia zirkularreko zerbitzu aurreratuak lehen zentroa den Basque Circular Hub delakoaren inaugurazioarekin zerbitzu aurreratuak gehitzen jarraitu da.

HEALTH KLUSTERRA INDARTZEA

Euskadiko osasun-sektorearen garapenarekiko konpromisoa osasun-sektorearen eta teknologia- eta enpresa-sektorearen arteko lankidetzan indartzean islatu da. Osasun Saila Basque Health Clusterreko ohorezko bazkidea da.

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

INDUSTRIA GARATZEKO ETA NAZIOARTEKOTZEKO 2021-2024 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA (2021ean onartua)

NAZIOARTEKOTZEARI LAGUNTZEKO ZERBITZUAK INDARTZEA

Nazioartekotzeko Euskal Agentziak eguneratzen jarraitzen du nazioarteko merkatuei, enpresentzat interesgarria den sektore-informazioari eta bere Nazioarteko Behatokiaren informazioari buruzko argitalpenen edukia. Hainbat ekitaldi antolatzen ere parte hartu du, hala nola VI. Enpresa lizitatzailleen topaketa, Food For Future nazioarteko azoka, Intergune ekitaldia eta Nazioartekotzeko Euskal Batzordearen lehen bilera.

Bestalde, Euskadik aurrera egin du nazioartekotze-prozesuan, Kanpo Sarearen bulego bat ireki baitu Tokion, merkataritza-ordezkaritza bat Hego Korean eta Euskadiren ordezkaritza berria Frantzian. Era berean, nazioarteko aliantzak sendotu dira, hala nola IZMIR Garapen Agentziarekin (Turkiako eskualdea) lankidetzan aritzea, Txileko Biobio eskualdearekin nazioartekotzea eta ingurumena sustatzeko akordioa sinatzea eta Indiako PHDCC enpresa-elkartarekin lankidetzahitzarmena sinatzea.

Enpresak nazioartekotzeko prozesuek Zabaldu, Sakondu, Elkartu edo Gauzatu Internacional laguntza-programak izan dituzte. Aurten, gainera, Aholku Programa jarri da abian, Ukrainako gerrak eragindako enpresek kontratatzen duten lege-aholkularitza diruz laguntzeko.

KANPOKO INBERTSIO PUBLIKOKO PROIEKTU PILOTUAK

Pilotu laguntza-programarekin jarraitu da, euskal enpresek nazioarteko inbertsio publikoko proiektu pilotuen diseinuan eta garapenean parte har dezaten, haien posizionamendua eta nazioarteko lehiakortasuna hobetzeko. Ekimen honek itzuli beharrik gabeko laguntzak jaso ditu nazioarteko inbertsio publikoko proiektu pilotuen diseinuan eta garapenean parte hartu eta nazioartekotze-prozesuan zehar garapen iraunkorra sustatu nahi duten enpresentzat.

BASQUE COUNTRY MARKA SENDOTZEA

Basque Country marka bultzatzen jarraitu dugu, euskal enpresak atzerrian aintzatesteko eta omentzeko tresna gisa, nazioartean duten proiektzioa hobetuz. Ildo horretan, nabarmendu behar da euskal esportazioak % 29 hazi zirela aurreko urtearen aldean, eta, horrela, Basque Country estrategia eta Euskadik munduan duen irudia indartu ziren. Ekimen adierazgarrienetako bat Makina Erremintaren Biurtekoa izan da. Bertan 28 herrialdeetako 1.446 enpresa erakusketari hartu ziren eta argi eta garbi islatu da makina-erremintaren euskal industriaren susperraldia eta bere maila teknologiko eta lehiakor handia.

TALENTUA GARATZEA ETA ERAKARTZEA

Nazioartean gaitzea eta prestatzea funtsezko elementua da talentua garatzeko eta erakartzeko. Horretarako, Euskadik bere talentua indartzen jarraitzen du, Beint International eta Global Training nazioartekotze-beken deialdien erregulartasunari jarraipena emanez. Gainera, Euskadin talentua erakartzeko eta atxikitzeko beharra jarri da mahai gainean, eta, horretarako, berrikuntza gisa sartu da Talent Spot 2022ko Intergunen, Talentuaren Foroan. Era berean, kanpoko sareko euskal talentuaren gaikuntza eta lidergoa hobetzen eta nazioarteko talentua erakartzen jarraitu da.

NAZIOARTEKO BATERATZEAK ETA ESKURATZEAK BULTZATZEA

Merkatu-inteligentziako tresnek lagundu dute EAEko enpresa-taldeek enpresak hazteko eta sendotzeko dituzten aukerak identifikatzen, nazioarteko bat-egiteei eta eskuratzeei lotutako inbertsioak lagunduz. Mercedesen inbertsioa sendotu egin da, eta, horri esker, Gasteizko lantegia Van elektriko berrietan lehena izango da, automobilgintzako euskal industria laguntzailea bultzatuko du eta 35.000 industria-enplegu finkatuko ditu.



4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

Taula honetan, 2022an industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea sustatzeko exekutututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea	Aurreikuspena 2020-2024	Aurreikuspena 2022	Exekuzioa 2022
Industria-garapena: Basque Industry 4.0, ETEei laguntzea, <i>reshoringa</i> eta sendotzea, krisian dauden enpresei laguntzea, zerbitzu aurreratuak eta sormen-industriak, eta Health Cluster indartzea.	1.004 M€	129 M€	188 M€
Enpresentzako maileguren finantza-kostua murriztea (COVID-19)	53 M€	11 M€	5 M€
Enpresak nazioartekotzea	107 M€	25 M€	25 M€
Enpresek parte hartzeko inbertsioak (FEI)	-	160 M€	97 M€
4. POLITIKA, GUZTIRA	1.164 M€	325 M€	315 M€

1. oharra: XII. legegaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2022ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021eko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2022ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

5. politika. Elikagaigintza

NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUAREN ERAKUNDEARTEKO PLAN ESTRATEGIKOA. EUSKADIKO GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOA

BELAUNALDI-ERRELEBOA

HAZIrekin eta Gomiztegi kooperatibarekin batera, Behizain Eskola sustatu da, kalitatezko prestakuntzaren bidez esnetarako behien azpisektorea biziberritu nahi duen zentroa, modu profesionalean behien sektorean aritu nahi duten gazteak gaitzeko.

GazteNek Berri programa jarri da abian, gazteak lehen sektorean eta landa-eremuan sar daitezzen errazteko.

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA ETA JASANGARRIA

AZTI Fundazioak 2022an honako proiektu hau garatzeko laguntza jaso du: PROTEUS: Proteina osasungarrien, jasangarrien eta seguruen iturrietan oinarritutako elikagaien belaunaldi berria haur, senior, begano eta kirolarientzat. Era berean, elikagaien ikerketan egindako inbertsioa Itsaslur ekimen sozioenpresarialari emandako laguntzaren bidez gauzatu da; Muskizko nekazaritzako elikagaien berrikuntzarako zentroa da, eta berrogeita hamar pertsona enplegatuko ditu, horietatik % 70 laneratzeko.

AKUIKULTURA SUSTATZEA

Akuikulturari laguntzea, akuikulturatik eratorritako eraldatze- eta merkaturatze-programen bidez, bai eta proiektu berritzaileak bultzatzea, akuikultura-parkeak eraikitzea, enpresa berriak sortzea, ezagutza tekniko eta teknologia aurreratua sortzea eta ingurumena etengabe zaintzeko sistema bat garatzea ere.

LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Lehen sektorearen eta elikagaien industriaren lehiakortasuna hobetzeko, nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuak eta arrantzatik eta akuikulturatik eratorritakoak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntza-programak egin dira (Lehiatu Berria programa).

Era berean, nabarmentzekoak dira Handitu laguntza-programa, nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsio handiak egiteko, eta Handitu Innova programa, nekazaritza-produkzioan berrikuntza teknologikoarekin lotutako inbertsio handiak egiteko laguntzak emateko.

Eusko Jaurlaritzak SDADrekin sinatu du. Koop. Eroski euskal nekazaritzako elikagaien sektorearen garapen iraunkorra lortzeko lankidetzat hitzarmena.

Behatoki.eus aurkeztu da, Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Katea indartzeko eta etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko tresna berria.

ARRANTZAKO EUROPAKO FUNTSAREN PROGRAMA OPERATIBOA

BELAUNALDI-ERRELEBOA ETA TALENTUA ERAKARTZEA

Itsas arrantzaren sektorean belaunaldien arteko erreleboa bermatzeko asmoz, Itsasoratu programarako funtsak mantentzen dira, eta 2016tik 95 gaztek jaso dute jada programa horren onura. Horrez gain, sektorean Prestakuntza Duala ere integratu da, prestakuntza ikastetxe batean eta enpresan bateragarri egiteko aukera ematen duena; edo patroien erretiroaren eta itsasoan esperientzia duten baina titulaziorik ez duten langileekin belaunaldi berriak iristearen artean igarotzeko gaitasuna aitortzeko gailua, eta gazteek enpresetan sartzea eta/edo titulartasuna beren gain hartzea sustatzeko programak.

ARRANTZA JASANGARRIA

Kudeaketa-planak ezartzen lagundu da, stockak maila jasangarrietan daudela kontrolatzeko eta bermatzeko. Iruzuraren eta legez kanpoko arrantzaren aurkako borroka ere areagotu egin da trazabilitate-sistema hobetuen bidez.

DIBERTSIFIKAZIO EKONOMIKOA

Enpresen dinamismoa bultzatzen jarraitzen da, ekipamenduak, zerbitzuak eta azpiegiturak hobetzeko proiektuei laguntza emanez, Leader, Erein edo Itsaspen programen bidez..



5. politika. Elikagaigintza

Taula honetan, 2022an elikagaigintza aktibatzeko exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

5. politika. Elikagaigintza	Aurreikuspena 2020-2024	Aurreikuspena 2022 (2)	Exekuzioa 2022 (3)
Nekazaritza eta Landa Garapena (<i>from farm to fork</i>)	385 M€	92 M€	141
Arrantza	100 M€	28 M€	34
Elikagaien Sustapena eta Kalitatea	128 M€	39 M€	51
5. POLITIKA, GUZTIRA	613 M€	159 M€	226 M€

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2022ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021eko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaraturako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria

MERKATARITZA. MERKATARITZA-ESTRATEGIA 2030

2030erako Euskal Merkataritza Estrategiaren funtsezko edukia eta 2025erako Plana aurreratu ondoren, euskal merkataritza-ekosistemaren eragileei aurkeztu zaie, eztabaidatzeko eta hobetzeko. Horren barruan sartuko dira, halaber, merkataritzari laguntzeko 2024ko sail-programak eta Kontsumobideren plana.

KUALIFIKAZIOA ETA BERRITZEA

Belaunaldi-erleboia eta enpresa-jarraitutasuna etengabe babestea Berriz Enpresa programaren bidez, enpresen transmisioa modu neutral eta gardenean errazteko eta martxan dauden negozioetan sartzeko aukera eskaintzeko.

DIGITALIZAZIOA ETA DIBERTSIFIKAZIOA

Kontsumitzaileak babesteari dagokionez, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Lege Proiektua onartu da, kontsumitzaileen eskubideak merkataritza digitalaren modu berrien aurrean babestea bermatzen duena. Internet, Sare Sozialak eta Enpresa Txiki eta Ertainak sinposioaren hirugarren edizioa egin da. Bertan, datozen 5 urteetarako aurreikuspen teknologikoak eta sozialak jorratu ziren nazioarteko adituen eskutik.

MERKATARITZAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Merkataritza-sektoreari babesa ematen jarraitzen da, bereziki COVID-19aren krisiak eragindakoari, Denda Bonuaren 3. edizioaren bidez eskaria bultzatuz, % 99ko betearazpena baitakar. Halaber, hiriko merkataritzaren dinamizazioa eta lehiakortasuna hobetzeko Hirigune Programaren deialdia onartu da. Ondoren, MECekin lotutako merkataritza-establezimenduak modernizatzen laguntzeko programa onartu da. Halaber, ekipamendu pertsonalerako eta etxerako laguntzen pakete berri bat onartu da, txikizkako merkataritzari zuzendua. Nabarmentzekoak dira, halaber, Euskadiko merkataritza sustatzeko sinatutako hitzarmenak. Hitzarmen horien helburua da lehiakortasuna hobetzeko eta retailaren sektorea bultzatzeko programak antolatzea, bai eta merkataritza-asoziazionismoa sendotzea ere. Merkataritzako bulego teknikoaren zeregina ere indartzen jarraitzen da.

TURISMOA ETA OSTALARITZA. TURISMO JASANGARRIAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030

Kontsumo eta Turismoko Plan Estrategikoa prestatzen ari dira. Horren barruan sartuko da, beste batzuekin batera, turismoa eta ostalaritza sustatzeko sailaren programa.

JASANGARRITASUNA, ERANTZUKIZUNA ETA BIKAINASUNA

Jasangarritasun Turistikoko bigarren Lurralde Plana onartu da. Lehenengo deialdian 11 hitzarmen onartu ziren, eta horien bidez helmugei eta dagozkien jardura-programei euskarria emango zaie, horiek eraldatzeko eta modernizatzeko, 4 ardatz nagusitan oinarrituta (trantsizio berdea eta iraunkorra, eraginkortasun energetikoa, eraldaketa digitala eta lehiakortasuna). Era berean, Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren proiektuaren hirugarren edizioa jarri da abian. Dagoeneko 530 enpresa atxiki zaizkio proiektuari, eta turismo-eragile guztiek eguneroko jardunean gizarte-erantzukizunak eta ingurumen- eta ekonomia-iraunkortasuna txertatzea du helburu.

LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Pandemiak eragindako galerak berdintzen jarraitzeko asmoz, ostalaritzari eta gaueko aisialdiari laguntzeko programa berri bat onartu da. Era berean, GATURI proiektuaren aurkezpena nabarmendu behar da. Proiektu horren helburua da mugaz gaindiko eremuko turismo eta nekazaritzako elikagaien sektoreetako enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzea, Nafarroarekin, Errioxarekin, Pays Basquerekin eta Biarnorekin batera Nazioarteko Helmuga Gastronomiko Bakarra eraikiz, merkaturatzeko eta nazioartekotzeko estrategia bateratuak diseinatzu. Era berean, Euskadi-Basque Country helmugan erakargarritasun eta esperientzia turistikoa hobetuko duten eta turismo-fluxu berriak dinamizatu, banatu eta sortuko dituzten proiektu turistikokoak garatzeko laguntzek aurrera jarraitzen dute.



6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria

KULTUR INDUSTRIAK. EUSKADI SORTZAILEA

Basque District of Culture and Creativity (BDCC) aurkeztu da, bai eta Kultura eta Sormen Industriak (ICC) bultzatzeko estrategia berri bat ere, KSIgune klusterraren bidez (KSI Berritzaile+ programa).

Beste ekintza nabarmen bat CREADIS3 Final Conference izan da, "Berrikuntzan eta aniztasunean oinarritutako kultura- eta sormen-politika eraginkoragoetarantz" goiburuarekin. Proiektu hori Euskadik gidatu du 2017-2021 aldian.

MERKATARITZAREN, TURISMOAREN ETA KULTURAREN ARTEKO SINERGIAK BULTZATZEA

Merkataritza-sektoretik sortzen diren elkarlaneko sinergiak bultzatzen jarraitu da, beste sektore batzuetako eragileekin lankidetzan eta koordinatuta, Hiria 3.1 bezalako programen bidez.

Halaber, turismoaren eta kulturaren sektoreen arteko lankidetzak sinergiak bultzatu dira, industria-ondarearen eta itsasadarraren balorizazio turistiko eta kulturalari buruzko proiektuen bidez, esaterako.

6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria

Taula honetan, 2022an merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria berraktibatzeke exekutatuak aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria	Aurreikuspena 2020-2024	Aurreikuspena 2022	Exekuzioa 2022
Merkataritza	84 M€	22 M€	22 M€
Turismoa eta ostalaritza	76 M€	18 M€	64 M€
Kulturaren industria	153 M€	35 M€	34 M€
6. POLITIKA, GUZTIRA	313 M€	76 M €	120 M€

- oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulatuak aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.
- oharra: 2022ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021eko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.
- oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.



II. ardatza – Enplegua sortzea

2022ko Berpiztu Programa

- 7. politika. Ekintzailletza. Enpresa berriak
- 8. politika. Enplegurako prestakuntza
- 9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak
- 10. politika. Renove programak. Eraikinen birgaikuntza
- 11. politika. Enplegu Publikoaren Eskaintza
- 12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana



EKINTZAILTZAKO ERAKUNDEARTEKO PLANA (EEP) 2021-2024

MIKROETE ETA AUTONOMO SORTU BERRIAK

Lanbidek ekainean onartu du mikroekintzailtzari eta autoenpleguari laguntzeko plana. Era berean, autoenplegua sustatzen eta enpresa berriak (mikroETEak) sortzen lagundu da, ekintzaileentzako laguntzen bidez, prozesu ekintzailearen fase guztietan (idea garzaketik eta enpresa-proiektua abiaraztetik kontsolidatzeraino). Programa horien artean daude, besteak beste, laguntza ekonomikoa, laguntza, tutoretza eta langabeziaren kapitalizazioa. Aurrera egin da Lanbidek eta Arabako, Bilboko eta Gipuzkoako merkataritza-ganbera ofizialek sinatu beharreko hitzarmenean, Berrerekarako eta ekitaterako, ekintzailtzarako eta mikroenpresetarako lurralde-proiektu berriak eta mikroenpresak programa finantzatzeko laguntzen deialdia gauzatzeko.

ENPRESA-PROIEKTU BERRIAK

Enpresa-proiektu berriak bultzatzen jarraitzen da, 2024ko Ekintzailtzaren Erakunde arteko Plana gauzatzuz. Laguntza-programek, Gauzatu Berria kasu, oinarri teknologikoko enpresa-proiektu berritzaileak bultzatzea ahalbidetu dute, inbertsioaren eta enplegua sortzearen aldeko apustua egiten duten industria-enpresa txiki eta ertainei zuzenduta. Bestalde, Barnekintzaile bezalako programen bidez, enpresen barruan sortutako barne-ekintzailtzako proiektuen garapena sustatu da (negozio-lerro berriak, produktuak eta zerbitzuak).

NAZIOARTEKO STARTUP-AK ERAKARTZEA

Nazioarteko talentuaren eta startup-en erakarpena hainbat ekimenen bidez hedatu da, euskal enpresen eta startup-en arteko elkarreragina, berrikuntza-proiektuen garapena eta Euskadin ezartzea errazteko helburuarekin. Ekimenik aipagarrienetako bat Bind 4.0 berrikuntza irekiko plataforma da. Plataforma horrek azelerazio programaren zazpigarren edizioa abiarazi du, SME Connection enpresaren lehen edizioarekin batera.

Halaber, Up!Euskadi plataforma nabarmentzen da, startupak eta ekosistemako eragile guztiak ikusarazten dituena, eta Euskadi ekintzailtza aurreratuko hub gisa kokatzen duena.

ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK

Kalitatezko enplegua sortzen lagunduko duten enpresa txiki eta ertain teknologiko eta berritzaile berrien sorrera honako programa eta zerbitzu hauen bidez hedatu da: laguntza ekonomiko eta finantzarioak (Ekintzaile programa); aholkularitza eta laguntza BICen bidez (enpresa-berrikuntzako zentroak); aholkularitza-, mentoring- eta coaching-zerbitzuak; eta nazioarteko merkatuetan sartzeko laguntzak.

ETE BERRIAK LEHEN SEKTOREAN, GIZARTE-EKONOMIAN, MERKATARITZAN ETA TURISMOAN

Enplegua sortzeko ahalmena duten sektore jakin batzuetan ekintzailtzaren aldeko apustua laguntza-programa espezifikoen bidez islatu da. Gizarte-ekonomiaren eremuari dagokionez, ekintzailtza, lurralde-sustapen planifikatua eta gizarte-ekonomiako enpresen sendotzea babestu dira. Era berean, gizarte-ekintzailtzarako laguntza indartu da, energia-komunitateentzako laguntza-lerro baten bidez eta Ukrainako gerrak eragindako inpaktuarentzako beste lerro baten bidez. Gizarte Ekonomiari buruzko Sailen arteko Lehen Plan Estrategikoa gauzatzen ari da. Plan horren helburuen artean dago ekintzailtza kolektiboa sustatzea, batez ere lan-sozietateak eta kooperatibak handituz.

Landa-ingurunean eta itsasertzean jarduera ekonomikoa sortzeak berriazko laguntza izan du Leader, Erein, Gaztenek eta Geroa programen bidez, dibertsifikazio-jarduerak sustatzeko, enpresa berriak sortzeko eta daudenak handitu eta modernizatzeko. Bestalde, merkataritza eta turismo sektoreek berriazko laguntzak izan dituzte turismo iraunkorarekin eta tokiko kontsumoarekin lotutako enpresak sortzeko eta/edo jarraitzeko.



7. politika. Ekintzailtza. Enpresa berriak

Taula honetan, 2022ean exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta ekintzailtzaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

7. politika. Ekintzailtza. Enpresa berriak	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2023ko aurreikuspena		2023ko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
MikroETEak eta autonomoak	26 M€	4.565	5 M€	860	4,5 M€	782
Elikagaien sektoreko enpresa berriak	13 M€	1.245	3 M€	250	4 M€	340
Gizarte-ekonomiako enpresa berriak	6 M€	747	3 M€	386	5 M€	475
Turismo- eta merkataritza-sektoreko enpresa berriak	8 M€	913	6 M€	64	5,5 M€	64
Enpresa berritzaile berriak	175 M€	3.320	21 M€	1.000	15,5 M€	996
7. POLITIKA, GUZTIRA	128 M€	10.790	38 M€	2.560	34,5 M€	2.657

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. II. ardatzeko (Enplegua sortzea) 2022ko datuen jatorria Superegiturak 210 - Enplegu Plana txostenean dago. 2022an sustaturiko enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da. Programa hori Sailek berrikusi eta eguneratu dute ondoren..

3. oharra: 2022ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaraturako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

8. politika. Enplegurako prestakuntza

2030ERAKO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA. ENPLEGURAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024

II. ARDATZA –
ENPLEGUA
SORTZEA

LANGABEAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Enplegurako Lanbide Heziketaren esparruko prestakuntza-ekintzak gauzatu dira (2022-2024 bi urteko deialdia), langabetuak birkualifikatzeko, lan-merkatuan eskatzen diren kualifikazio eta gaitasunekin bat etorritz.

Era berean, prestakuntza-deialdi espezifikoak egin dira langile kualifikatuen eskari handiko sektoreetako prestakuntza-jarduerak babesteko; enplegu-nitxo berrien eremuko lanbide-gaitasunetarako; eta gaitasun digitalak hobetzeko, ekintzailtza eta landa-garapena bultzatzeko eta genero-arrakala murrizteko (PRTRren esparruan).

Bestalde, reskilling- eta upskilling-ekintzak garatzen lagundu da, biztanleria aktiboa prestatzeko eta birkualifikatzeko, sektore estrategikoetako lanbide-kualifikazioei, pertsonen zaintzari eta despopulazio-arriskuan dauden eremuei lotuta (langabeentzako eta landunentzako ekintzak).

NEKAZARITZAKO ETA ARRANTZAKO TREBAKUNTZA

Nekazaritzarako, itsasorako eta arrantzarako gaikuntzaren eta elikagaien arloko prestakuntza-ekintzak urte anitzeko deialdiaren (2022-2024) eta Hazirekin egindako kudeaketa-gomendioko akordioen bidez gauzatu dira. Programa horrek Enplegurako Prestakuntzaren esparruan dauden langabeentzako eta landunentzako prestakuntza-ekintza espezifikoak barne hartu ditu..

KONTRATATZEKO KONPROMISOA BEREKIN DUEN PRESTAKUNTZA

Enpresek berriazko prestakuntza-ekintzak garatzeko laguntza izan dute, eta prestakuntza jaso duten pertsonen % 50ek gutxienez kontratatzeko konpromisoa hartu dute, berriazko kualifikazio-osagarria behar duten lanbide-profilen premia zehatzei erantzuteko.

Era berean, emakumeen kualifikazioa eta laneratzea babestu da lan maskulinizatuetan, berriazko prestakuntza- eta enplegu-programen bidez, gutxienez %70eko kontratazio-konpromisoarekin.

LANDUNAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Lanean ari diren langileentzako prestakuntza bi urtez behingo deialdiaren bidez hedatu da, 2022-2024 prestakuntza-eskaintzarekin, lanean ari diren langileen trebakuntza egokitu eta hobetzeko.

Bestalde, enpresek laguntza izan dute beren langileentzako estrategikoak diren prestakuntza-ekintzak garatzeko (hobaridun prestakuntzaren kreditua agortu ondoren).

Pertsona okupatuek, halaber, reskilling eta upskilling prestakuntza-ekintzak izan dituzte (*ikus erreferentzia ezkerreko taulan*).

LAN-ORIENTAZIOA

Enplegurako orientazio-ekintzen eta -zerbitzuen garapena bultzatzen jarraitu da, prestakuntza laneratze-ibilbide integral pertsonalizatuak diseinatzeko prozesuaren zati gisa lotuz, eta arreta berezia jarriz enplegutik urrunen dauden pertsonen (bi urtez behingo 2021-2023 deialdia). Zerbitzu integral bat eskaini nahi da, honako hauek barne hartuko dituena: pertsonaren profilaren diagnostikoa, ibilbidearen diseinua eta hura garatzeko laguntza, enpresekiko bitartekaritza eta ondorengo jarraipena, enpleguan sartzea bermatzeko.

Gainera, koitunturazko zereginetan bi zerbitzu-eginkizun onartu dira, Gasteizko eta Sestaoko enplegurako orientazio-, ekintzailtza-, laguntza- eta berrikuntza-zentroen jarduera kudeatzeko. Bi zentro horiek, Oarsoaldean dagoenarekin batera, Europar Batasuneko MRR funtsek finantzatzen dituzte, eta laneratzea eta kalitatezko enplegua sustatzen dituzten proiektu berritzaileak bultzatu nahi dituzte.

Hitzarmen bat sinatu dute Madrilgo Enplegurako Agentziak eta Lanbidek orientazio birtualaren arloan.



8. politika. Enplegurako prestakuntza

Taula honetan, 2022an exekutatuako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta enplegurako prestakuntzaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

8. politika. Enplegurako prestakuntza	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2022ko aurreikuspena		2022ko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Lan-orientazioko programak	35 M€	16.600	8 M€	4.218	8 M€	4.757
Nekazaritzako eta arrantzako trebakuntza-programak (elikadura-katea)	3 M€	519	0,8 M€	300	0,8 M€	308
Kontratatzeko konpromisoa berekin duen prestakuntza	14 M€	1.245	3 M€	275	1 M€	276
Langabeak laneratzeko prestakuntza	222 M€	23.736	49 M€	9.000	43 M€	12.642
Landunak birziklatzeko prestakuntza	68 M€	*	21 M€	*	18 M€	0
8. POLITIKA, GUZTIRA	342 M€	42.100	82 M€	13.793	71 M€	17.982

(*) Birziklatze-programek enpleguan egonkortasun eta kalitate handiagoa dute, baina zuhertasun-hipotesiengatik ez da aurreikusten enplegua zuzenean sortzea

1. oharra: XII. legegaldarako (2020-2024) kalkulatuako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzeko (Enplegua sortzea) 2022ko datuen jatorria Superegiturak 210 - Enplegu Plana txostenean dago. 2022an sustaturiko enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da. Programa hori Sailek berrikusi eta eguneratu dute ondoren.

3. oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea. Era berean, kontuan izan behar da 2022ko aurreikuspenean enplegurako prestakuntzako jardueretarako zenbatetsitako laneratzeko-tasa murriztaileagoa zela (% 25) kudeaketa-mandatutik eratorritakoa baino (% 45), eta, azkenean, hori aplikatu da 2022ko emaitzak kalkulatzeko, Hezkuntza Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak (Lanbide) emaitzen benetako esperientzian oinarrituta emandako jarraibideen arabera.

9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

2030ERAKO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA. ENPLEGURAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024

TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK

Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen Programak urteroko deialdia izan du, enplegarritasuna hobetzeko eta langabeen kontratazioa sustatzeko, tokiko erakundeek enplegua sustatzeko jarduerak garatuz, tokiko enpresek kontratazioa sustatuz eta laneratzean lagunduz.

Egoera ahulean dauden eskualdeak eta/edo lehentasunezko arretako eremuak (Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri, Oarsoaldea eta Aiaraldea) berrindartzeko plan bereziarekin jarraitu da. Horretarako, ekintza espezifikoak egin dira eskualde eta/edo eremu horiei bultzada berria emateko, proiektu bultzatzaileak dinamizatuz.

12 udal diruz lagundu dira, 2022-2024ko Inbertsio Estrategikoen Planaren barruko hiri-berroneratze integraleko proiektuei lotutako prestakuntza-proiektuak, enplegu-proiektuak, orientazio-proiektuak eta gizarteratzeko eta laneratze laguntza-proiektuak egiteko.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK KONTRATATZEA

Desgaitasuna duten pertsonen benetako lan-inklusibotasunaren alde lan egiten jarraitzen da, merkatu arrunterako sarbidea sustatzera eta mantentzera bideratutako berariazko laguntza-programen bidez. Horrela, merkatu arruntean kontratazio mugagaberako laguntzen urteko programa garatu da, lanpostuak desgaitasuna duten pertsonen baldintza fisiko, psikiko eta intelektualetara egokitzea errazten duena. Osagarri gisa, desgaitasun-maila eta zailtasun handienak dituzten pertsonen aldi baterako kontratazioa babestu da, enpresentzako euskarri teknikoak barne. Bestalde, laguntza jaso duten enplegu-unitateek laguntza espezifikoak izan dituzte.

KONTZILIATZEN DUTEN PERTSONEN ORDEZKOAK KONTRATATZEA

Lana eta familia uztartzearen dimentsioa enpresei eremu horretan zuzenean laguntzeko urteko programaren bidez bultzatu da. Horri dagokionez, berria da 102/2022 Dekretua, seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatze laguntzei buruzkoa, onartzea. Dekretu horrek 3 urtetik 14ra luzatu du adingabearen izaera.

ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAK

Urriaren 29ko 168/2019 Dekretuaren babesean, handitu egin dira desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko enplegu-zentro berezietarako dirulaguntzen zenbatekoak, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 50etik % 55era. Ildo beretik, Enplegu Zentro Berezietako Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateentzako laguntzak onartu dira. Unitate horiek talde multiprofesional gisa eratzen dira, laneratze oso zailak diren Enplegu Zentro Berezietako desgaitasuna duten langileek dituzten oztupoak gainditzeko laguntzeko.

BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN LANERATZEA ETA LANERATZE-ENPRESENTZAKO LAGUNTZAK

Proiektu berezien urteko deialdiak merkatuan sartzeko eta/edo merkatuan mantentzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea bultzatzen jarraitu du, prestakuntza-ekintzen, esperientzia praktikoaren, gizarteratzeko laguntzaren, orientazioaren, banakako laguntzaren eta enplegarritasuna hobetzeko eta laneratze beste neurri batzuen bidez. Laneratze enpresen funtzionamenduak berariazko laguntzak izan ditu, beren jarduera sortu eta mantentzeko.

IRAUPEN LUZEKO LANGABEAK KONTRATATZEA

Iraupen luzeko langabezia-egoeran dauden 30 urtetik gorako langabeak kontratatzeko pizgarrien ekimen espezifikoak jarri dira abian, emakumeentzako eta 45 urtetik gorako pertsonentzako laguntzen intentsitate handiagoarekin. Era berean, Next Generation funtsen esparruan, Berrorekarako eta Ekitaterako Lurralde Proiektu Berriak nabarmentzen dira, 45 urtetik gorako langabeentzat eta kalteberatasun-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzat. Proiektu horiek banakako ibilbideak ematen dizkiete onuradunei, askotariko ekintzak konbinatuz (lan-orientazioa, aholkularitza, prestakuntza eta lanbide-gaitasunak eskuratzea, aldi baterako lan-kontratuak, lanaldi partzialekoak, etab.).



9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

Taula honetan, 2022an exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta laneratzearen eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2022ko aurreikuspena		2022ko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak	174 M€	14.525	28 M€	2.000	19 M€	2.056
Bazterketa-arriskuan dauden pertsonak laneratzea	18 M€	1.245	4 M€	630	5 M€	716
Iraupen luzeko langabeen laneratzea, sektore pribatuan kontratatzeko laguntzen bidez	6 M€	518	2 M€	150	5 M€	495
Lanertzeko programa espezifikoak enpresetan	58 M€	3.182	12 M€	758	11 M€	511
Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea enpresetan (kontratazio mugagaberako laguntzak + enplegu lagundua)	8 M€	830	2 M€	150	2 M€	228
Enplegu-zentro bereziak	258 M€	*	65 M€	*	65 M€	0
Laneratze-enpresentzako laguntzak	45 M€	*	10 M€	*	10 M€	0
Lan- eta familia-bizitza erantzunkidetasunez uztartzeak eragindako enplegua	10 M€	5.810	2 M€	1.550	1 M€	683
9. POLITIKA, GUZTIRA	577 M€	26.110	125 M€	5.238	118M€	4.689

(*) Programa horiek desgaitasuna eta lanertzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enpleguaren egonkortasuna bermatzen dute, baina zuhurtzat jo da ez dutela enplegu berririk sortzen modu esanguratsuan.

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzeko (Enplegua sortzea) 2022ko datuen jatorria Superegiturak 210 - Enplegu Plana txostenean dago. 2022an sustaturiko enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da. Programa hori Sailek berrikusi eta eguneratu dute ondoren.

3. oharra: 2022ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaraturako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.



2030ERAKO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA. ENPLEGURAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024

ERAIKUNTZAREN RENOVE PROGRAMAK

Birgaitze- eta eraikuntza-jarduerak bultzatzeak garrantzi eta eragin berezia du, bai enplegua sortzeari dagokionez, bai ingurumenari eta gizarteari dagokionez. Ildo horretan, eraikitako parkea berritzeko eta birgaitzeko programen garapenak, efizientzia energetikoaren irizpideei jarraiki eta emisiorik gabeko eraikinetarantz aurrera egin nahian, ekonomia suspertzeko eta jasagarritasunerako motor garrantzitsua izaten jarraitu du, eta, aldi berean, Europako Itun Berdean eta Eusko Jaurlaritzaren Larrialdi Klimatikoaren Adierazpenean 2050erako ezarritako karbono-isurien neutraitasunaren Europako helburuari lagundu dio.

2022an, sektore horren jarduera ekonomikoa bultzatu duten eraikuntzako hainbat eremutan birgaitze-programak garatzen jarraitu da, bai eta lanpostu berdeak sortzen ere, Covid-19aren ondoriozko krisitik ateratzeko Europako lehentasunekin lerrotatuta. Jarduera nagusiak honako programa hauen bidez hedatu dira:

RENOVE Etxebizitza: 2021-2023 Etxebizitza Plan Zuzentzailean etxebizitzak eta eraikinak modu eraginkorrean birgaitzen jarraitu da, bizigarritasuna, segurtasuna eta irisgarritasun-baldintzak hobetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko, partikularrentzako eta jabeakideen erkidegoentzako laguntzen deialdia gauzatu edo eraikitako ondarean esku hartzeko proiektuak egiteko laguntzen deialdia eginez. Era berean, hiri-ingurunearen eta espazio publikoaren irisgarritasuna hobetzeko berroneratze-jarduerak babestu dira, bai eta hirigintza- eta gizarte-arazo bereziak dituzten eremuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketak ere. Bestalde, hiri-berroneratzeko laguntzak eman zaizkie udalei banaka (Amurrio, Eibar, Durango, Lasarte-Oria); eta auzoak berroneratzeko eta Euskadiko hainbat udalerritako enplegurako Inbertsio Estrategikoen Erakunde arteko Plana onartu da.

RENOVE Ikastetxeak: Ikastetxe publikoetan (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta lanbide heziketa) birgaitze-obra garatzeko laguntza eman da, azpiegiturak egokitzeko edo eraberritzeko eta/edo handitzeko beharrezanean erantzuteko, eskolatze-arrazoiengatik. Obren xedea izan da, batez ere, arkitektura-oztopoak kentzea, espazio eta instalazio jakin batzuk handitu eta eraberritzea (karrerapeak, estalkiak, jantokiak eta sukaldeak, aldagelak, kirol-eremuak, instalazio elektrikoak eta abar), suteen aurkako araudira egokitzea eta eraikin berriak eraikitzea.

RENOVE Osasun Zentroak: Osasun zentro publikoetan birgaitze- eta birmoldaketa-jarduerak babestu dira, hainbat motatako eta irismeneko erreformak barne, baita azpiegituren, instalazioen eta irisgarritasunaren hobekuntza orokorra ere. Obrek batez ere honako ESI eta azpiegitura sanitario hauei eragin diete: Arabako ESIa; Debagoieneko ESIa; Arabako Errioxako ESIa; Tolosaldeko ESIa; Donostialdeko ESIa; Bidasoako ESIa; Goierri-Urola Garaiko ESIa; Debabarreneko ESIa; Uribeko ESIa; Bilbo-Basurtuko ESIa; Barrualde-Galdakaoko ESIa; Barakaldo-Sestaoko ESIa; Ezkerraldea Enkarterri Gurutzetako ESIa; Arabako Osasun Mentaleko Sarea; Transfusio eta Ehunen Euskal Zentroa; Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea; Santa Marina Ospitalea; Gorkizko Ospitalea; eta Larrialdiak..

10. politika. Renove programa. Eraikinen birgaikuntza

Taula honetan, 2022an exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta Renove programaren eta eraikinen birgaikuntza-programaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

10. politika. Renove programak. Eraikinen birgaikuntza	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2022ko aurreikuspena (2)		2022ko exekuzioa (3)	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Renove Etxebizitzak	143 M€	10.269	32 M€	2.578	27 M€	2.142
Renove Ikastetxeak	209 M€	3.752	64 M€	1.285	47 M€	945
Renove Osasun-zentroak	54 M€	979	20 M€	398	19 M€	388
10. POLITIKA, GUZTIRA	406 M€	15.000 (*)	116 M€	4.261	93 M€	3.475

(*) Zenbatespena, biderkatzaileetan oinarrituta. Renove Etxebizitza programaren kasuan, 4 aldiz biderkatzen da inbertsio publikoa (laguntza publikoko 1 € gehi inbertsio pribatuko 3 €, jabe bakoitzeko), eta, kopuru horren gainean, 0,6ko biderkatzailea aplikatzen da soldatara (enpleguak) bideratutako zatia kalkulatzeko, eta zatiketa bat 30.000 euroko enpleguen batez besteko soldata kalkulatzeko. Renove Ikastetxeak eta Renove Osasuna programen kasuan, inbertsioa guztiz publikoa da; beraz, batez besteko lansaria eta soldata biderkatzaileak baino ez dira hartzen kontuan.

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzeko (Enplegua sortzea) 2022ko datuen jatorria Superegiturak 210 - Enplegu Plana txostenean dago. 2022an sustaturiko enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da. Programa hori Sailek berrikusi eta eguneratu dute ondoren.

3. oharra: 2022ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

2030ERA KO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA. ENPLEGURAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024

ENPLEGU PUBLIKOA

Enplegu publikoaren sektorea enplegatzaile eraginkor eta efiziente gisa sendotzea, kalitatezko enplegua sortzea eta hobetzea sustatzeko, administrazio publikoarentzat erronka izaten jarraitzen du. Horretarako, belaunaldi-erreleboaren plangintza egokia bultzatzen jarraitu da, ezagutza erakundeen barruan mantentzen dela bermatuz, eta enplegu publikoari lehentasuna emanez gizarte-politikekin (osasuna eta hezkuntza, esaterako), funtsezko zerbitzuekin (segurtasuna, esaterako) eta zerbitzu orokorren beste eremu batzuekin lotutako eremuetan.

Testuinguru horretan, 2022ko maiatzaren 24ko Gobernu Kontseiluak 2022ko Lan Eskaintza Publikoa onartu du, 8.764 plazarekin, eta hori oso aurrerapauso garrantzitsua da enplegu publikoan bitartekotasuna murrizteko helburuan. Lanpostu horiek honela banatu dira: 1.686 Administrazio Orokorrean; 3.040 Hezkuntzan; 315 Segurtasunean; eta 3.723 Osasunean.

Enplegu Eskaintza Publiko horren arabera, 2023an sektore bakoitzeko deialdiak egingo dira, eta deialdi horietan zehaztuko dira eskainitako plazak eskuratzeko prozedura eta baldintzak, bai eta desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazen banaketa ere.

Administrazio Orokorrari dagokionez, Kidego eta Eskalen Euskal Legearen arabera garatutako finkatze-prozesuen barruan eskaini daitezkeen plaza huts guztietarako deialdia egin da. Horrek esan nahi du 3.510 plaza daudela, eta lan-kontratuko langileei dagozkien plazak zenbatuta, guztira 3.683 lanpostu deitu dira. Hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak 2022ko maiatzaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu dira.

Euskadiko Administrazio Orokorrak 6.315 plazako plantilla estrukturala du, eta, prozesu horien bidez, guztira 3.683 plaza esleitzen dira behin betiko finkatzeko, hau da, eskaini daitezkeen lanpostu huts guztiak. Horrela, egiturazko bitartekotasuna Europak herri-administrazio guztientzat helburu orokor gisa ezartzen duenaren azpitik geratzen da.

Bestalde, Hezkuntzan, 6.365 plaza deitzen dira guztira egonkortzeko hautaketa-prozesuen eta ohiko hautaketa-prozesuen artean; Segurtasunean, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako Oinarrizko Eskalako agenteen kategorian txanda irekiaren bidez sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdi bateratua argitaratu da, 2021ari dagokiona (424 plaza); eta Osasunean, Osakidetzako plantilla azken 20 urteetan gehien handitzea onartu da, 2.467 plazarekin, Osakidetzan guztira 30.073 plaza izanik. –

11. politika. Enplegu Publikoaren Eskaintzak

Taula honetan, 2022an exekututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta enplegu publikoaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

11. politika. Enplegu Publikoaren Eskaintzak	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2022ko aurreikuspena		2022ko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Administrazio Orokorra	*	1.150	*	1.100	*	1.686
Osasuna	*	4.100	*	2.000	*	3.723
Ertzaintza	*	1.900	*	290	*	315
Hezkuntza	*	3.100	*	600	*	3.040
Justizia	*	320	*	50	*	-
Beste batzuk	*	150	*	25	*	-
11. POLITIKA, GUZTIRA	*	10.720	*	4.065	*	8.764

(*) Ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. kapitulu orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. 2022 betearazpen-zifrak (enpleguak) aurrerapen-izaera dute, eta behin betiko betearazpenari buruzko datuak eskuratu ondoren berrikusi ahal izango dira. Datua 2022an onartutako plazei buruzkoa da (ez deialdiei buruzkoa).

12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana

2030ERA KO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA. ENPLEGURAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024

LANBIDE HEZIKETA ETA UNIBERTSITATE-HEZIKETA DUALA

Prestakuntza dualaren eredua bultzatzen jarraitu da unibertsitatearen eta lanbide-heziketaren esparruan. Horrela, Unibertsitatea+Enpresa II. Estrategia aurkeztu da, unibertsitateko prestakuntza duala egiten duten ikasleen kopurua bikoizteko, egungo 4.800 ikasleetatik hurrengo 4 urteetan 10.000ra pasatuz. Era berean, eskaintza bikoiztu nahi da, unibertsitateko prestakuntza dualeko 80 titulazio lortu arte.

Bestalde, Unibertsitatea+LH programa bultzatu da, adar bereko LHko ziklo batekin ikasketak indartu nahi dituzten unibertsitate-ikasleek gutxienez beharrezko kredituen % 25 baliozkotzea lor dezaten. Lanbide Heziketaren esparruan, eredu dualean eskaintako zikloen (erdi- eta goi-mailako graduak) eta espezialitateen irismena zabaltzen jarraitu da.

GAZTEEN ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-BEKAK

Nazioartean, Beint International eta Global Training beka-programak indartu dira. Era berean, berriazko beka eskaini dira ingurune zientifiko-teknologikoan eta nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektorean.

HEZKUNTZA-MUNDUTIK LAN-MUNDURA IGAROTZEKO PROGRAMAK

Unibertsitateekiko eta lanbide-heziketako zentroekiko lankidetzaren programen bidez, indartu egin da hezkuntza-mundutik lan-mundurako gazteen trantsizioa. Horrela, ahalegina egin da ikasleei enpresa-esperientzia eskaintzeko, beren ezagutzak, trebetasun teknikoak eta trebetasunak handituz eta enpresen benetako beharrak asetzeko prestatuz.

GAZTEEN ITZULERA

Gazteak itzultzeko programa ez da martxan egon 2022an. Programa honen bidez, Euskaditik kanpo bizi izan ondoren, itzuli nahi duten gazteak euskal lan-merkatuan sartzen lagundu nahi da.

LEHEN AUKERA

Gazteei lehen lan-aukera ematea lehentasunezko ekintza-ildoak izaten jarraitzen du. Hala, dagokion laguntza-deialdiaren bidez, Lehen Aukera 2022 programa jarri da abian, gazteei lehen lan-aukera emateko, beren titulazioaren antzeko lanpostuetarako enpresak kontratatuz. 2022an, enpresen erantzun ona ikusita, partida % 50 handitzea erabaki zen.

Era berean, toki-erakundeek 16 eta 30 urte bitarteko gazteak kontratatzeko laguntzen deialdia egin da, FSE Plus 2021-2027 programaren esparruan, haien enplegarritasuna errazteko, lanbide-esperientzia eskuratuz.

ERRELEBO-KONTRATUA

Enpresetako plantillak berritzeko eta gartzetzeko, 30 urtetik beherako gazteen txanda-kontratuei, lanaldi osokoei edo mugagabekoei, laguntzeko urteko deialdia egin da. Osagarri gisa, 45 urtetik gorakoentzako lerro espezifiko bat sartu da programan.

GAZTEAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Enplegurako Prestakuntzaren esparruan, EAeko gazteek prestakuntza-ekintzak egin dituzte gizarteratzeko, egokitzeko gaitasuna hobetzeko eta enpresen eskaerei erantzuteko hainbat ekimenen bidez. Bereziki, prestakuntza-ekintza espezifikoagoak ere eskaini dira, gizarteratzen eta laneratzen kualifikazio txikia duten gazteei laguntzeko.

Halaber, Hezibi programa garatu da, gazteentzako prestakuntza eta ikas-ekinezko lana sustatzeko, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan.



12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana

GAZTEAK LANERATZEKO EKINTZA BERRITZAILEAK

Beren lehen lan-aukera bilatzen duten gazte tituludunen enplegarritasuna areagotzeko asmoz, izaera berritzailetzat jotzen diren beste gizarteratze-ekintza batzuk jarri dira abian, non aurten Europako funtsek garrantzi berezia izan duten Next Generation EU programaren eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Adibidez, Novia Salcedo Fundazioak "Reactivate 2022 programa" jarri du abian, gazte langabeak euskal enpresekin konektatzeko, esperientzia kualifikatu bat lor dezaten.

Halaber, Administrazio Publikoetako lehen esperientzia profesionalaren programaren deialdia ireki da. Programa hori 2023ko urriaren 31ra arte egongo da zabalik, eta 16 eta 30 urte bitarteko gazteei administrazio publikoetan eta sektore publikoko erakundeetan lehen esperientzia profesionala ematea du helburu.

Europako funtsek aukera eman dute, halaber, ikerketa-profila eta I+G+b duten gazteak hainbat arlotan kontratatzeko Ikerketa Programa, hala nola osasungintzan, datuen ingeniarietan, ekonomia berdean eta arlo sozial, kultural edo artistikoetan. Ildo horretan, finantzaketarako laguntzen aurrekontu-zuzkidura agortu dela jakinarazi da. Finantzaketa horretara bideratutako aurrekontu-kreditua handitzea ahalbidetuko duten funts berriak jaso ondoren hasiko da berriz.

Azkenik, aipatzekoa da SEPEk eta Euskal Autonomia Erkidegoak sinatutako hitzarmena (orientazioko, prestakuntzako eta laneratzeko ekintzak konbinatzen dituzten banakako ibilbideak), berronkarako eta ekitaterako proiektu pilotuak garatzeko, bereziki kalteberak diren gazteentzat eta 45 urtetik gorako langabeentzat.

GAZTEEN EKINTZAILTZA

Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasleen artean espirtu ekintzailea bultzatzeko apustu irmoari eusten zaio, ekintzailtza-prozesu osoan zehar gazteei laguntzen dien ekintzailtza-esperientzia praktikoa erraztuz. Era berean, mikroETEen eta/edo autonomoen ekintzailtza-programetan gazteen parte-hartzea bultzatu da, emandako laguntzen intentsitate handiagoarekin. Programa horiek laguntza integrala jasotzen dute, ideia garzaketik eta enpresa-proiektua abian jartzetik proiektua finkatzeraino.

SEPEk eta Euskal Autonomia Erkidegoak sinatutako hitzarmenak, halaber, berronkarako eta ekitaterako proiektu pilotuak garatzea aurreikusten du, bereziki kalteberak diren gazteei zuzenduta, ekintzailtzaren eta mikroenpresen arloan.

12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana

Taula honetan, 2022an exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta gazteen enpleguarekiko konpromisoaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2022ko aurreikuspena (2)		2022ko exekuzioa (3)	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Enplegurako prestakuntza duala	*	11.990	*	2.654		2.183
Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programak	14 M€	3.280	3 M€	736	3 M€	710
Gazteen enplegurako prestakuntza-bekak	42 M€	1.936	11,6 M€	514	11 M€	457
Gazteak laneratzeko prestakuntza **	18 M€	2.728	5 M€	1.450	3 M€	778
Gazteen enplegurako programak: Lehen Aukera, Errelebo Kontratua, Gazteen Itzulera eta Gazteak gizarteratzeko ekintza berritzaileak	65 M€	4.150	11,5 M€	1.160	34 M€	1.810
Gazteen ekintzailatza	23 M€	1.716	4 M€	450	0,7 M€	353
12. POLITIKA, GUZTIRA	162 M€	25.800	35 M€	6.963	51 M€	6.291

(*) Aurrekontua ez da sartu, LHko eta Unibertsitateko langileen gastuen kapituluan sartuta dagoelako.

(**) 2022an gauzaturako inbertsioaren atalean, ez dira sartzen ikas-ekinezko prestakuntzako Hezibi programako langile-gastuak (hasiera batean 1,5 eta 2 milioi euro artean aurreikusi ziren). Era berean, programa honen laneratze-tasa % 80koa izan da, hasieran aurreikusitako laneratze-tasa baino handiagoa.

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzeko (Enplegua sortzea) 2022ko datuen jatorria Superegiturak 210 - Enplegu Plana txostenean dago. 2022an sustaturiko enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da. Programa hori Sailek berrikusi eta eguneratu dute ondoren.

3. oharra: 2022ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaraturako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea. Era berean, kontuan izan behar da 2022ko aurreikuspenean enplegurako prestakuntzako jardueretarako zenbatetsitako laneratze-tasa murriztaileagoa zela (% 25) kudeaketa-mandatutik eratorritakoa baino (% 45), eta, azkenean, hori aplikatu da 2022ko emaitzak kalkulatzeko, Hezkuntza Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak (Lanbide) emaitzen benetako esperientzian oinarrituta emandako jarraibideen arabera.



2. eranskina

BERPIZTU 2023

Aurrekontu-aurreikuspena,
emaitzak eta ekintza nagusiak





I. ardatza – Ekonomia suspertzea

2023ko Berpiztu Programa

- 1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea
- 2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala
- 3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa
- 4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea
- 5. politika. Elikagaigintza
- 6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria



Berpiztu 2023. Aurreikusitako ekintza nagusiak

Aurreko orrialdeetan aipatu den bezala, 2020ko ekitaldia XI. Legegintzaldiaren eta XII. legegintzaldiaren arteko trantsizio-ekitaldia izan zen, 2020ko irailean hasitakoa. Berpiztu Programaren lehen ekitaldi osoa 2021ean gauzatu zen, pandemiaren ondoriozko krisiak batez ere markatutako testuinguru sozioekonomiko nahasi batean. 2022. urtea Berpiztu programaren bigarren ekitaldi osoa da. Oraindik Covid-19tik guztiz berreskuratu ez den eszenatoki batean garatu da, Errusiak Ukrainan egindako inbasioak eragindako ondorio suntsitzailiek areagotuta, 2023ra arte luzatu baita.

Jarraian, 1. ardatzeko (Ekonomia suspertzea) 6 politiketan garatzea aurreikusten diren ekintza nagusien hurbilketa orokorra egiten da, bai eta dagokion aurrekontu-aurreikuspena ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2023ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan oinarrituta (abenduaren 23ko 11/2022 Legearen bidez onartu ziren aurrekontu horiek).

1. politika. Inbertsioa azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan

2030erako Garraio Iraunkorraren Gidaplanean oinarrituta, 2023ko ekitaldirako aurreikusitako ekintzarik garrantzitsuenak mugikortasun iraunkorraren hobekuntzan oinarrituko dira, eta, zehazki, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren jarduera-ildo nagusiak honako hauetan oinarrituko dira: EAEko trenbide-azpiegitura hobetzean; hiri-garraioko trenbide-eskaintza hobetzean; Bilboko metro-sarea eraikitzean eta zerbitzua ematean; Euskal Y-a; Europako sarean sartzean euskal trenbide-sare berriaren eta Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidearen bidez, eta EAEko garraio-sistema arrazionalizatzean.

Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren jarduera garrantzitsuenek portuak babesteko gure azpiegiturak indartzeko jarduketak jasotzen dituzte, denboraleen inpaktu-energia eta olatu-altuera apartekoaren aurrean. Hondarribiako eta Getariako portuetako kanpoko babes-dikeak indartzeko obrak 2023an luzatuko dira, eta Ondarroako portuko babes-dikea sendotzeko obrak esleitzea eta hastea aurreikusita dago. Azpiegitura hidraulikoetan, ibilguak mantentzeko eta lehengoratzeko lanekin, uholdeen aurkako defentsa- eta prebentzio-obrekin, hornidura- eta saneamendu-obrekin eta uraren kalitatea hobetzeko jarduketekin lotutako jarduketekin jarraitzea aurreikusten da.

Era berean, inbertsioak egingo dira gizarte-azpiegiturretan eta - ekipamenduetan, herritarrentzako zerbitzuetan eta hiri-berroneratzean, honako hauek barne: Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Unibertsitate Hezkuntzako zentroak; osasun-zentroak eta ospitaleak; kultura-ekipamenduak eta ondare historikoarekin eta dagoeneko eraikita dagoen etxebizitza-parkearen birgaitzearekin lotutakoak, alokairuko etxebizitza berriekin batera. Aurrekoari gehitu behar zaizkio Plan Berezian aurreikusitako jarduerak, egoera ahulean dauden eskualdeak edo lehentasunezko jarduera-eremuak berrabiarazteko. Bestalde, Eusko Jaurlaritza LINKER (Large Infrastructures for Key Excellence Research) deituriko programa bat bultzatzen ari da, bikaintasuneko ikerketa zientifikoari lotutako epe luzeko azpiegitura estrategiko handiak garatzeko. Programa horrek azpiegitura zientifiko estrategiko handiak emango dizkio Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareari, epe luzerako ikuspegi estrategiko batetik.

Berpiztu 2023. Aurreikusitako ekintza nagusiak

2. Politika. Ikerketa, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala

2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren esparruan, eta Euskadiko Espezializazio Adimenduneko Estrategiarekin (RIS3) bat etorritik, laguntza-programa berri baten lehen deialdia egingo da, elkarlaneko zeharkako proiektu traktoreak identifikatzen laguntzeko. AZPITEK azpiegitura zientifiko teknologikoak eskuratzeko eta hobetzeko laguntzen programa pilotua indartuko da, bai eta I+G proiektuei laguntzeko programak ere, bai enpresa-sektorerako (HAZITEK programa), bai ZTBESko eragileentzat (ELKARTEK programa). EMAITEK eta BIKAINTEK programak ere mantenduko dira. Zehazki, 2023an zehar, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren garapena babesten jarraituko da unibertsitatearen eremuan eta bikaintasuneko oinarrizko ikerketa-zentroetan, bai eta talentua erakartzeko, sustatzeko eta atxikitze politikak ere, politika zientifikora, unibertsitate-ikerketara eta bikaintasuneko oinarrizko ikerketara bideratutako baliabideak handituz, Gobernu Programan jasotako konpromisoarekin bat etorritik (gutxienez % 6ko hazkundea).

2025erako Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategiak (ETDE2025) eraldaketa digitalerako eredu berri bat definitzen du. Eredu horrek, batez ere, zerbitzu publikoen kudeaketa digitalizatzea eta herritarrengana hurbiltzea du helburu (lana eta enplegua, e-administrazioa, hezkuntza, lurralde adimendunak, mugikortasun berria, e-osasuna eta ongizatea, e-justizia, hizkuntzaren industriak eta turismoa eta merkataritza), bai eta enpresa-ehuna digitalizatzea ere, bereziki ETEen multzoan, horiek baitira bide horretan zailtasun gehien izan ditzaketenak. Gizarte-erronken eta RIS3 Euskadi estrategiaren arteko integrazio handiagoa lortzeko, hiru Zeharkako Ekimen Traktore sartu dira zahartze osasungarriaren, mugikortasun elektrikoaren eta ekonomia zirkularren eremuetan, Horizonte Europa programaren misioekin lerrotatuta. 2023an, halaber, Bioekonomiaren Euskal Estrategia bultzatu nahi da, Euskadi Europako hegoaldean bioekonomiaren polo bihurtzeko.

3. politika. Trantsizio energetikoa eta ingurumenekoa

